

GAIA: PRH FORMAZIO ESKOLA • EKARPENAK: SORMENAREN
GARRANTZIA • GALDEIDAZUE: FONTSO CANTERA • ALGORRI
EZAGUTZA ETXEA • ATZEKO ATETIK: EIDER EIBAR

hh
hik hasi

126

4 EURO • 2008KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

Alfonso Sastre

“Gure hitzik preziatuenak ‘elkartasuna’
izan behar du beti”

PiRRItx eta PORROTx


Familiak milakolore

CD-Rom-ak berriak!



Familia eredu
anitzak,
maitasunaren
loturak indartuta.

Puzzleak berriak!



Ipuinak



Karta jokoa



aurkibidea



8
gaia

PRH FORMAZIO ESKOLA

Pentsatzen eta ikasten ikasteko, komunikatzen ikasteko, elkarbizitzen ikasteko, norbera izaten ikasteko eta, egiten eta ekiten ikasteko tresnak eskaintzen ditu PRH formazioak. Beraz, curriculumak jasotzen dituen bost gaitasunak garatzeko tresna egokia izan daiteke. Formazio hori ezagutu nahi izan dugu.



16
elkarrizketa

ALFONSO SASTRE

Gai askoren gainean idatzi du Alfonso Sastre filosofo eta idazleak bere ibilbidean zehar, eta, tarteka, hezkuntzari buruz ere aritu da. Gaur egungo hezkuntzaren gainean hitz egin dugu Sastrekin.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

PRH FORMAZIO ESKOLA

NORBERAREN GARAPEN INTEGRALAREN BILA

16 elkarrizketa

ALFONSO SASTRE

22 esperientziak
Irakutrezin

24 esperientziak
Experimentaldia

26 ekarpena

Sormenaren garrantzia

Nola bultzatu sormena eskola ingurunean

30 galdeidazue

Nola balia ditzakegu irakasleok geure emozioak ikasgelan, ikasleen garapen emozionala bultzatzeko?

Fontso Cantera

33 berriak

40 nora joango gara?

ALGORRI EZAGUTZA ETXEA

Milioika urteko historia lurrean idatzita

42 Atzeko atetik

Eider Eibar

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Olatz Lasagabaster. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Alfonso Sastre. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-2-14). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

martxoa

Euskarazko irakaskuntza Nafarroan erronka berrien aurrean



Duela urte gutxi “Hizkuntza ereduak sortzen duten zatiketa perbertsoa da” zioen Luis Otano Adarra pedagogia elkarteko sustatzaile historikoak.

Kezka dago Nafarroan Hezkuntza Departamentuak hizkuntzei ematen dien trataera dela-eta. Orain, iritzi guztien gaineratik ingelesa irakatsi nahi du nola-hala.

Hiru hilabeteko birziklapena eskaini eta 200 irakasle izango ditu prest datorren ikasturterako. Hori da hori lana egiteko abiadura, ezta? Prestakuntza egokirik gabe posible al da emaitza egokiak lortzea? Bada, ziurra dena da, emaitza egokirik gabe zalantzan jarriko dela ingelesaren irakaskuntza.

Lehen, 1986ko Foru Legeak Nafarroa zatitu zuen hiru hizkuntza eremutan (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna), eremu euskaldunari soilik aitortuz euskararen ofizialtasuna.

Duela urte gutxi “Hizkuntza ereduak sortzen duten zatiketa perbertsoa da” zioen Luis Otano Adarra pedagogia elkarteko sustatzaile historikoak.

Konproba litekeenez, hainbat zatiketa ematen da Nafarroako hezkun-

tzan: hizkuntza eremuak, hizkuntza ereduak, eta hain agerikoak ez diren baina eragina duten sareen arteko zatiketa sozialak eta abar. Banaketa horiek guztiek zaildu egiten dute herritarren kohesioa, behar berezia duten ikasleen inklusioa, hizkuntzen normalizazioa eta planifikazio koherentea egitea.

Europako komunikazio inguruko etorkizuna aztertzerakoan, adosten den irizpide nagusienetakoa da eskolatik hiritar eleanitzak atera behar direla.

Nafarroan, gaur egun arte, D eremuan ikasitakoek lortu dute hiritar elebidunak izatea. Ikastolak izan ziren aintzindari egiteko horretan. Orain ere, aintzindari dira ikasle eleanitzak sortzen, azken urteetan ingelesa goiztiarra eskaintzen, eta, hainbatetan, frantsesa gehitzen Bigarren Hezkuntzan.

“Hizkuntzaren bizikidetzako eredu” ezarriko du Nafar Gobernuak 2008-2009 ikasturtean. Hau da, ingelesa eta gaztelania. Eta, D eremuan zer?

Otsailaren 20an Iruñeko NUPen egindako “Elebitasunetik eleaniztasunera” jardunaldiak kezka eta behar horri heldu zion. Diziplinartean arituz, psikologo, pedagogo, legegile, soziologo, irakasle, katedradun eta abar aritu ziren proposamenak egiten: haurrek hizkuntzak ikasteko duten gaitasuna, hizkuntzen arteko transmisioa nola gertatzen den, hizkuntz proiektu zehatzak aurkezten, arlo kurrikularra eta ez-kurrikularra nola uztartu proiektu berean, ebaluazio jarraitua eta hezitzailearen garrantzia hezkuntza prozesuak hobetzeko eta abar.

Iruñeko jardunalditik zera ondoriozta genezake: hezkuntza eleanitzak eleaniztasun printzipioak errespetatu behar dituela, bitarteko egokiak jarri, ebaluatu, emaitzen aurrean neurriak hartu... Bestela, nekez lortuko dira hiztun eleanitz, elebidun eta elebakarrak ere. Gauzak ezin dira besterik gabe egin!

kronika

Ikasle etorkinei aparteko trataera ematea salatu du SOS Arrazakeriak elkarteak. Ikasle guztiek trataera bera jaso beharko luketela esan dute, eta azpimarratu nahi izan dute immigrazioak ez duela arazorik ekarri euskaral ikastetxeetara. Immigrazioa eskolek beti izan dituzten zailtasun eta erronken eta talde heterogeneoen dinamikan kokatu behar dela esan du arrazakeriaren kontrako elkarteak. Bestalde, SOS Arrazakeriak jakinarazi du ez datorrela Eusko Jaurlaritzak ezarritako etorkin kuotarekin bat. Jaurlaritzak ezarritako kuotaren arabera, gehienez, ikasleen %30 izan daitezke etorkinak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren ikasle etorkinek eskola pulikoretan ikasten dute batez ere, A ereduan. Hori erakunde publikoek gurasoei ematen dieten orientabidearen ondorio dela uste du SOS Arrazakeriak-ek eta galdetu egin dute ea ikasle horiek ezin duten euskaraz ikasi.



Ordu murrizketaren aurkako greba egin dute Soin Hezkuntzako irakasleek

Soin Hezkuntzako hainbat irakasleek greba egin zuten otsailaren 11n, "Soin Hezkuntzari ordu murrizketaren bidez kendu zaion garrantzia eta duintasuna" salatzeko. Elkarretaratzea egin zuten Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren egoitzaren aurrean eta ondoren, ordu murrizketaren aurka jaso dituzten 75.000 sinadura aurkeztu zituzten han bertan.

SOHAT, Soin Heziketaren Aldeko Taldeak, egin zuen deialdia eta ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatuen babesa izan zuen. Horrez gain, 200 kirolariren atxikimendua, hainbat guraso elkarteren elkartasuna eta kirol federazioen laguntza jaso zuten.

Greba deialdiak jarraipen handia izan zuen antolatzaileen esanetan. Esan zutenenez, irakasleen %80k egin zuen bat greba deialdiarekin; Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera,

berriz, Soin Hezkuntzako irakasleen %39k egin zuen lanuztea, hau da, 821 irakasletatik, 323k. Eusko Jaurlaritzak esan zuen, irakasleek goizegi egin dutela greba, Eskola Kontseiluek ez dituztelako oraindik ikastetxeetako ordutegiak zehaztu. Era berean, jakinarazi zuten, murrizketaren aurka dauden familiek, Eskola Kontseiluetan eta Ordezkaritza Organo Gorenetan euren proposamenak aurkezteko aukera dutela.

Antolatzaileek salatu zutenenez, curriculumak Soin Heziketan ezarri duen ordu murrizketak haurren eta gazteen garapen osoaren aurka egiten du, eta inposaketa hutsa izan da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak onartutako dekretuaren arabera, Soin Heziketaren orduak, Lehen Hezkuntzan %40 eta Bigarren Hezkuntzan %37 murriztuko dira.

Murrizketa horiekin, curriculumak jasotzen dituen gaitasunak garatzea ezinezkoa izango dela dio SOHAT-ek, astero ordu eta erdi izanik haur eta gazteek gorputzari dagozkion gaitasunak behar bezala garatuko dituztenik ezin baitute bermatu. Murrizketa aplikatu aurretik ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe askok ez dituztuen Soin Hezkuntzako orduak betetzen SOHAT-ek 140 ikastetxetan egindako azterketaren arabera. Gaur egun legeak 150 minutu ezartzen ditu Lehen Hezkuntzan eta 120 minutu, Bigarren Hezkuntzan.

Azken ikerketek erakusten dutenez, lau hilabeteko haurrek zorrotzago atzematen dute ingurunea pertzepzioaren bidez, askoz ere geroago erabiliko dituzten hitzen bidez baino

K. Karmiloff



Euskara maila frogatu beharko dute Iparraldeko ikasleek

Lapurdikoa, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasle elebidunek euskara maila frogatu beharko dute aurrerantzean. Hizkuntza bizien Europako Kontseiluaren Erreferentzia Marko Bateria oinarriturik, ikasleek maila bakoitzean lortu behar dituzten ezagutza eta gaitasunak finkatuko dituzte. Euskararen kasuan ere, lortu beharreko helburuak zehaztuko dituzte, bertako hizkuntzak frantsesak duen eskakizun maila bera izango ez duen arren.

Philippe Carriere, Paueko akademia ikuskariak esan duenez, euskal ikasleek Frantziako konstituzioak ezartzen duen ordu kopurua gainditzeko aukera izango da ama-eskola batzuetan, beti ere esperientzia moduan, eta gurasoek eta ikastetxeak oniritzia ematen badute. Bestalde, Bigarren mailan ere, parekotasuna lortu nahi dela adierazi du EPP Euskararen Erakun-

de Publikoak. Bigarren maila amaitzean, EGA agiriaren parekoa sortu nahi dute. Max Brisson EPPko presidentearen esanetan, urrats garrantzitsua eman da irakaskuntza elebidunaren eraikitzean. Gaur egun euskara eta historia-geografia ikasgaiak ematen dira euskaraz eta matematikak ere euskaraz eman nahi dituzte etorkizunean. Hori guztia kontuan hartuta, irakasleen prestakuntzari ere erreparatu beharko diote eta horretarako plangintza berezia jarriko dute martxan.

Plangintza hori garatzean, irakasleen prestakuntzarako egiturak egokitzeari gain, alderdi hauei erreparatuko diete:

- Frantziako Hezkuntzak ikasleek lortu behar dituzten mailak zehaztuko ditu.

- Lehen mailako ikastetxe elebidunetako irakaskuntzen antolaketarako norabide dokumentua osatuko da.

- Eskola publikoko lehen mailako irakasle postuak esleitzeko ratioa zehaztuko dute.

- Lehen maila publikoetan euskara ordu gehiago emateko aukera zabalduko da.

- Seaska eta Frantziako Hezkuntza arduradunak akordioa lortzeko urratsak egiten hasi dira.

- Irakaskuntza elebiduneko bigarren mailan euskaraz ematen diren ordu kopurua handitu egingo da.

Madrilgo Hezkuntza Ministerioak, Elkarbizitzaren eta errespetuaren alde Iruñeako San Fermin ikastolak eginiko lana saritu du. Ikastolak "Elkarbizitzen ikasten" programa martxan du eta eskola indarkeria edota drogomenpekotasuna saihesteko egindako lana aitortzen zaio sari horren bitartez. Zehazki, Espainiako gobernuak eman dituen hamahiru sarietatik hirugarrena jaso du, hitzartutako zentro pribatuen kategorian. Zizur Txikian kokatzen den ikastolako zuzendari den Pilar Vicente pozik agertu da sariarekin, "ikasleek pertsona onak sortzeko egin ohi dugun lanaren aitortzea da; gizartean inplikatu diren pertsonak, bestearekiko positiboak diren pertsonak, eta hori da hain zuzen, egiten duguna". Programak, era berean, gurasoak zein ikasleak hezteko xedea du.

GAIA

PRH Formazio Eskola

*Norberaren garapen
integralaren bila*





PRH formazioak Nortasunaren eta Giza Harremanen gaineko trebakuntza eskaintzen du. Izan ere, hizki horiek gaztelaniazko *Personalidad y Relaciones Humanas*-en laburdura dira.

Pentsatzen eta ikasten ikasteko, komunikatzen ikasteko, elkarbizitzen ikasteko, norbera izaten ikasteko eta, egiten eta ekiten ikasteko tresnak eskaintzen ditu PRH formazioak. Beraz, curriculumak jasotzen dituen bost gaitasunak garatzeko tresna egokia izan daiteke. Ez da ikasleei eskaintzen zaien trebakuntza, helduei zuzendua baita, eta hezitzaileentzat eta irakasleentzat balio berezia izan dezake, ikasgelan aplikatuzakitelako eta ikasleei curriculumak jasotzen dituen gaitasun horiek garatzen lagun diezaiekitelako.

G

Norbera izaten ikasi, elkarbizitzen ikasi

PRH, pertsonen, bikoteen eta taldeen garapen integralerako psikopedagogia gisa definitzen da, eta psikologiaren korrante humanistaren baitan kokatzen da.

André Rochais soziologo frantziarrak sortu zuen 60. hamarkadan eta pertsonen trebakuntza du oinarri. Rochais irakaslea zen eta interes handia zuen metodo pedagogiko aktiboetan. Helduen prestakuntzan aritzea erabaki zuen, horrek erakartzen zuelako eta bide horretan ari zela, Freineten eta Montessoriren eragina jaso bazuen ere, Carl Rogersen eragina izan zen nabarmena. Rochaisek sortu zuen sisteman Rogersen lau ideioi lekua dute:

1) Pertsonen izatearen sakontasuna landu behar da. Bertan dago guztion alderdi positiboa eta nortasuna osatzen duten pertsonaren ezaugarriak.

2) Norbera izatera heltzeko, norberaren senean konfiantza izan behar da.

3) Pertsonaren PRH eskemak daki-guna eta sentitzen duguna alderatzeko aukera ematen du.

4) Besteei euren hazkundean laguntzeko PRH metodoak parekotasunak ditu Rogersenarekin: pertsonarengan konfiantza duen laguntza harremana eta bestearen hazkundea bultzatzeko ahalegina egiten duena.

PRH, formazio eta ikerketarako erakundea Frantzian bertan sortu zen 1971n. Egoitza nagusia Poitiersen dago, eta gaur egun, bost kontinenteetako 40 bat estatutan ditu ordezkariak. 250 bat prestatzailerik 20.000 pertsona inguru trebatzen dituzte urtero.

Prestakuntzarako baliabideak eskaintzen dituzte, guztiak pertsona gisa hazteko. Lau taldetan banatzen dute prestakuntza hori:

1) Norberaren ezagutza. Nortasuna eta horren funtzionamendua lantzen dira.

2) Taldeko bizitza. Taldeko harre-

manak lantzen dira.

3) Bikotea eta heziketa. Bikote harremanak eta seme-alaben heziketa lantzen dira.

4) Laguntzarako formazioa. PRH metodologian oinarritutako laguntza eskaintzen da.

Euskal Herrian zortzi prestatzailerik daude. Horietako bat da Arantzazu Loidi. Hamabost urte pasatu dira PRHren berri izan zuenetik eta gaur egun horretan aritzen da lanean. Arantzazuk esan digunez, ikastaroak 30 orduko ikastaro trinkoak izaten dira eta gehienez, 15 pertsonako taldeak osatzen dituzte.

Autobehaketa da guztiaren oinarria. Lanerako metodologia beretsua da beti: hasteko, norberak gogoeta egiten du eta galdera batzuk erantzuten dira idatziz, ondoren taldearekin partekatzen da esperientzia hori eta amaitzeko, prestatzailerik ekarpena egiten dio pertsona bakoitzari eta taldeari. Horrek guztiak autoaurkikuntza egiteko aukera ematen du. "Prozesua oso gidatua dago, baina norberak egiten du bere buruaren azterketa eta aurkikuntza prozesua", esan digu Arantzazuk.

"Irakaslea izan edo igeltseroa izan, prozesua pertsonala da eta metodologia beti berbera da. Gai jakin baten inguruan norberak duen esperientzia aztertzen da eta ondoren, gure ikuspuntuarekin alderatzen da. Gure metodologiaren oinarria sentsazioak aztertzea da, sentitzen duguna aztertzen irakasten dugu. Eta horrez gain, erabaki egokiak hartzen ikasteko metodoa ere pro-



Norbera izateko ikasten

posatzen dugu”, jarraitu du. “Aldaketak oso azkar ikusten dira norberaren bizitzan. Gatazkak konpontzen soilik ez, horien zergatia lantzen eta norbere gaitasunak kontziente egiten eta ondoren praktikan jartzen ikasten da; bai harreman sozialetan, bai talde harremanetan, harreman afektiboetan, seme-alaben heziketan...”, gaineratu du.

PRH prestakuntzaren arabera, pertsona guztiek dute hazteko eta garatzeko joera eta giza nortasuna positiboa da. Hazkunde pertsonal hori besteekin elkarrekin egiten dela diote eta inguruak horretan laguntzen duela. Hazkunde pertsonala eta nortasunaren garapena, inkontzientea dena kontziente egitetik pasatzen dira.

Hezitzaileentzat egokia

Hezkuntzak paper garrantzitsua du gaitasun eta hazkunde pertsonala zabaltzeko eta horregatik da interesgarria PRH prestakuntza hezitzaileentzat. Jakina da hezitzaileek haurren eta gazte txoen nortasunaren garapenean duten eragina. Hezkuntzaren helburu nagusia ikasleek heldutasuna lortzea, haien balioak garatzea, askatasuna lortzea, sentitzen dutenari jaramon egitea eta pertsona gisa hazteko bitartekoak aurkitzea lirarteko eta horretan guztian laguntzen du PRHk.

Ikasleen kasuan, oinarritzakoa da bakoitzaren sakontasun positibo horretan oinarritutako giroa sortzea. Irakasleak adi egon behar du haurren edo gazte txoen gaitasunen aurrean eta horiek garatzen lagundu behar dio. Hezitzaileek ez dituzte haurren portaerak epaitu behar, begi positibo eta ulerkerekin begiratu behar dituzte, epaitzeko ez baitu haien garapena lagunduko.

Garrantzitsua da beraz, hezitzaileek garapenerako eta hazkunde perso-



Arantzazu Loidi, PRH prestatzailea.

nerako prozesua egitea, hezkuntzaren erronkei aurre egiteko. Ikasleek, norbera izaten ikasi behar dute; hala dio curriculumak eta PRH prestakuntzak haiei horretan laguntzen lagun ditzake hezitzaileak eta helduak, irakasle zein guraso izan. Irakasleak edo hezitzaileak hazkunde pertsonalerako prozesua egiten badu, pertsona gisa heldutasuna lortuko du eta ondorioz, haurrari laguntza handiagoa eskaintzeko aukera izango du.

PRH formazioa jaso ondoren, haur eta gazte txoen jarrera konstruktiboak handitzen direla esaten dute Eskola horretan formazioa eskaintzen duten hezitzaileek eta bereziki, haiengan alderdi aberatsak ikusteko moduko begirada lantzen dela. Enpatia lantzen laguntzen du PRHk eta horrek guztiak eguneroko zeregin pedagogikoa hobetzen du.

Garrantzitsuena, irakasleek egoera gatazkatsuei aurre egiteko moduko irratian pertsonala izatea da, ikasleentzat erreferentzia izateko eta haurren eta gazteen garapenean, jarrera positiboa izateko.

Hezitzaileentzat orohar, PRH trebakuntza jasotzea egokia da ikasleak pertsona izateko prozesuan laguntzeko:

- Norberaren gaitasunak eta mugak

ezagutzeko.

- Autoestima ona izateko.
- Erabakiak hartzen ikasteko eta eguneroko errealitateari era konstruktiboan aurre egiten ikasteko.
- Elkarbizitza laguntzen duten baloreak bizitzeko.

Hezitzaileak eta nortasunaren garapena

PRHren arabera, oso garrantzitsua da hezitzaileak pertsona helduak izatea, euren bizitzaren jabe izatea eta euren heziketa lana hobetzen ikastea, hezitzaile hobeak izateko; hezitzaile pertsona heldua izan ezean, zaila izango baita ikasleak emozionalki helduagoak izatea. Beharrezkoa da hezitzaileak:

** Heldutasun pertsonalerako hezitza*

Hezitzaileak hazkundean lagundu behar dio haurrari, dependentziaz heldutasun pertsonalerako bidea egiten lagundu behar dio. Maila guztietan garatzen lagundu behar dio: intelektuala, emozionala, afektiboki eta pertsonen arteko harremanei dagokienez. Gizartean bizitzeko eta garapen emozionalerako prestatu behar du. Jakina, haurrari den hori izaten lagundu behar zaio, erabaki propioak hartzen joan da-



din eta autonomia lortzen joan dadin. PRH prestakuntzak dio egiten jakiteko, ezagutzen ikasteko, elkarbizitzen ikasteko, sentitzen ikasteko eta izaten ikasteko hezi behar dela.

**Direna garatzen laguntzea*

PRH prestakuntzaren arabera, heztea, pertsonari hura izaten laguntzea da, haren lekua aurkitzen laguntzea eta haren gaitasunak ezagutzea, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harreman positiboak izan ditzan. Hezitzaileak horretan lagun dezake.

**Askatasuna garatzen laguntzea*

Haurri bere askatasuna garatzen lagun dakioke, bere adinak uzten duen neurrian, erabakiak hartzeko aukera emanaz.

**Sentitzen dutena ulertzen laguntzea*

Haurrei eta nerabeei sentitzen dutena eta bizitzen dutena ezagutzen lagun dakieke. Heziketa emozionala garrantzitsua da.

**Gorputza baloratzen eta haren mezuak entzuten laguntzea*

Gorputzarekiko arreta oso garrantzitsua da haurrek haien gorputzarekin behar den bezalako harremanak izan ditzaten.

**Hazkundera laguntzen duten birtuteak aurkitzen laguntzea*

Hezitzaileak den bezalako izaten lagunduko dioten harremanak landuz eta bere izatea alde batera uztera behar izaten duten harremanak baztertuz lagun diezaiokete haurri.

Hezitzaileen jarrerak nortasunaren garapena laguntzen dute, baina jarrera horiek lantzea pixkanaka egiten den prozesu baten emaitza da. Haurren eta gaztetxoaren hazkundera laguntzen duten jarrerak hauek dira:

- Harremanak benetakoa izatea. Beharrezkoa da hezitzaileak erakusten

duen estimua egiazkoa dela, esaten duena sinesten duela eta haiengan sinesten duela sentitzea.

- Entzuten jakitea.

- Pertsonen arteko harremanak sortzea. Horrek gustura sentiaraziko ditu, autoestima haziko da eta harreman afektiboak sortuko da.

- Maitasuna eta samurtasuna erakustea.

- Pertsona gisa errespetatzea.

- Bere gaitasunetan eta aukeretan sinestea. Garrantzitsua da jarrera negatiboak alde batera uztea.

- Gainerakoak edo haien lana zintotasunez goraiatzeko jakitea. Hobe da alderdi negatiboak baino, positiboak azpimarratzea.

- Pazientzia izatea. Maitasunez irakastea, azaltzea eta laguntzea.

- Ezepaitzea, ez kritikatzeko. Zaila da pertsona gisa haztea aldoan begirada kontrolatzailea baldin badugu.

- Bere kabuz erabakitzen laguntzea, inposaketarik gabe.

- Dituaren arazoei baino, pertsonari garrantzi handiagoa ematea.

- Portaeren aurretik, horren arazoak jartzea.

- Lanarengatik ilusioa eta interesa erakustea eta bizitzarekiko jarrera positiboak erakustea.

- Hazkundera lagunduko duten tes-tuinguruak sortzea.

Haur eta nerabeen beharrak

Haur eta nerabeei euren nortasuna garatzen laguntzeko, haien oinarriko beharrei arreta jarri behar die hezitzaileak PRH Formazio Eskolaren arabera. Hona hemen haur eta nerabeen behar batzuk:

**Onartua izatea*

Heztea, haurri "berez dena izaten" laguntzea da. Oinarrikoa da hau-

rrak den bezalako izateagatik poza sentitzea; ez dugu haur perfektua desiatu behar, horrek min handia egin diezaioketen itxaropenak sor ditzakeelako.

**Maitatua izatea*

Haurrak beharrezkoa du inguruko pertsonen maitatzea. Era horretan, segurtasuna sentituko du eta maitatzen eta besteengan konfiantza izaten ikasiko du. Horrek bere nortasuna ongi egituratzen lagunduko dio.

**Seguru sentitzea*

Hezitzaileak segurtasuna eman behar dio ikasleari eta horretarako beharrezkoa da bere segurtasun eza lantzea. Hori, sarritan, eskakizun zorrotzen atzean ezkutatuta egoten da, edo gehiegizko babesaren erakusten duten edota menperatzaileak diren jarreraren atzean.

**Haren heldutasun mailari egokitutako eskaerak jasotzea*

Beharrezkoa da eskaerak maila adinari eta garapen mailari egokitzea, eta beharrezkoa da, hezitzaileak haurrak edo gaztetxoak duen erritmo horretan laguntzea.

**Hainbat jakintza ikastea*

Haurrak egiten jakiteko, izaten jakiteko, elkarbizitzen jakiteko eta ezagutza barneratzeko eskubidea du. Eskolan eduki akademikoak irakasten dira, baina gizakiek nola funtzionatzen duten eta zoriotsu izateko norbere burua ezagutzeak duen garrantzia erakustea ere, beharrezkoa da.

**Nortasuna eraikitzea bultzatzea*

Garrantzitsua da hezitzaileak haur bakoitza bakarra dela eta erabakiak har ditzakeela ulertzea. Norbera izaten lagunduko behar diote, gainerakoak haiengandik espero dutenarekin konformatu gabe.

Ikasgelako esperientziak

Ixiar Egiguren eta Agustin Urretabizkaia

PRH formazioak irakasle lanean izan dezakeen eragina ezagutzeko, hainbat irakaslerekin hitz egin dugu. Ixiar Egigurenek eta Agustin Urretabizkaia urteak daramatzate PRH formazioa jasotzen eta oso gustura daude haien lanean izan duen emaitzarekin. Ixiarrek aurre hartu du erre-tiroa, Hernaniko Langile ikastolan hainbat urtez aritu ondoren, eta esan digunez, lanean aspertu gabe erretiratatzeko aukera eman dio PRHk. Agustin, Urrietako Salesiar Ikastetxeko Zuzendari Pedagogikoa da, eta ikastaro bat edonori oparituko liokeela dio. Bidea luzea dela, baina etengabe zerbait ikasten eta irabazten dela diote biek.



PRH formazioa jaso duzue. Zergatik hartu zenuten formazio hori jasotzeko erabakia?

Agustin: Nik 18 urterekin ezagutu nuen. Ezagun batzuek hitz egin zidaten horri buruz, ikastaro bat egin zuten eta oso pozik ikusten nituen. Nik orduan bizitzari sakontasun pixka bat eman nahi nion eta horrek animatu ninduen. Itsu-itsu joan nintzen eta pozik ateratzen nintzen. Orduan oinarriko ikastarora egin nuen “Nor naiz ni?” izeneko eta harrez gero, ikastaro gehiago egin ditut.

Ixiar: Ni 44 urterekin hasi nintzen. Urte asko neramatzan irakaskuntzan eta zerbait gehiago nahi nuen. PRH formazioa jasotzen ari zen lagun bat nuen eta animatu egin nintzen.

Zer eskaini dizue formazio horrek pertsonalki?

Agustin: Nire burua ongi ezagutzen lagundu dit; nire gaitasunak, hutsuneak, zergatik bizitzen ditudan gauzak, hainbat erreakzio... Eta bestetik, besteak hobeto ezagutzen eta ulertzen lagundu dit, baita harremanak sakonago bizitzen ere.

Ixiar: Orain 18 urte, eskola horretan hasi nintzenean konturatu nintzen neure buruarentzat ezezaguna nintzela, eta ezagutzekotan, nire akatsak, ezinak, konplexuak... baino ez nituela ezagutzen. Gaur egun, aldiz, nire alde positibotik defini naiteke, nire ezaugarri positiboak eta nire mugak lehen baino hobeto ezagutzen ditut. Besteak ez ditut epaile baten modura ikusten, gaitasunez beteta ikusten ditut. Hori guztia, ikasgelan bizi izan dut bereziki eta irakasle gisa hor kokatu dut nire zeregina; ikasleen gaitasunak eta mugak antzematen.

Agustin: Prestakuntza horrek gaitasunak eta alderdi positiboak garatzeko bidea ematen dizu. Niri, neure buruarekin eta ingurukoekin zorionsuago bizitzen laguntzen dit.

Arazoak hobeto bideratzen ere laguntzen al du?

Ixiar: Bai. Zalantzarik gabe. Nik harremanetan antzeman dut batez ere, orain harreman onak izateko gai sentitzen naiz. Ez ditut beti harreman onak, baina horra iristeko tresnak baditut.

Agustin: Tresna horrek gertatzen zaizuna ulertzeko gaitasuna ematen dizu. Zerbait aldatu behar duzunean, lehenik bizitzen ari zarenaz konturatu behar duzu eta hortik dator gainerakoa.

Ixiar: Errealismo hitza etortzen zait niri burura, egia hitza. Zeure buruari egia esateko gaitasuna garatzen duzu.

Agustin: PRHk oinarri teorikoa



du, baina pedagogia guztia norberak bizitzen duen horretan oinarriturik egiten da. Bizitzen dituzun gauzen inguruan eta horien gainean ikasten duzu. Azalpen teorikoak daude, bizitzen duzuna era gidatuan aztertzen duzu, baina aztertzen duzun guztia zure esperientzien ingurukoa da.

Eta profesionalki zer eman dizue, zer isla izan du PRH formazioak zuen eguneroko lanean?

Agustin: Nik ikusten dut gure lanaren arrakasta harremanetan dagoela, bai ikasleekin, bai gurasoekin, bai gainerako lankideekin. Oso teknikoak izan zitezke, jakinduria handia izan dezakezu, eskolak oso ongi presta ditzakezu, baina harremanak onak ez badira, galduta zaude. PRHn pertsona bera eta pertsonaren garapena goraiatzeko dira eta ikastaroetan asko jorratzen da haurren edo gazteen behar psikologikoa eta hezitzaileekiko duten jarrera. Ikasleak pertsona gisa hartzen dituzu eta haiek hori sumatzen dute. Hitz egiten diezunean eta haien balioak goraiatzeko dituzunean, gelan errespetu giroa sortzen da. Haiek garrantzitsuak direla eta gainerako gelakideak ere garrantzitsuak direla ikusten dute; ingurukoak pertsona gisa baloratzen dituzte. Nik ikasleengan sinesten dut eta haiek beharrezko dute hori. Gurasoek bestetik, irakasleok guraso izateko gai direla sinestaraztea behar dute, izan ere, askotan laguntza eske etortzen dira. Eta lankideak ere, pertsona garrantzitsu gisa ikusten badituzu, proiektu komunak bultzatzen saiatzea, errazagoa da.

Ixiar: Nik eskola horretan ikasi dudana ez da metodo bat, ez da irakasteko estrategia bat, baina lana egiteko moduan, aldaketa handia sumatu nuen ni-

gan. Pedagogia eta metodo egokienak aukeratzen irakasteko aukera eman dit; irizpide bat duzu eta ez duzu modaren arabera funtzionatzen. Nire lanaren garrantziaz jabetu nintzen, lanaren bidez gaitasun asko lantzen nituela ikusi nuen eta ikasleei ikasketetan laguntzeko gai nintzela. Lanean aspertu gabe erretiratu naiz.

Bestalde, ikasleak errespetuz begiratzen nituen eta horrelakoetan, dena aldatzen da. Gelan sartu eta beste pertsona batzuen aurrean kokatzen bazara, horrek asko laguntzen du. Nire lanaren helburua ikaslea protagonista sentitzea izan da. Gelara sartzen nintzenean eta aurreko egunekoak galdetuko nuela esaten nuenean denak urdurijartzen ziren eta nik esaten nien, "hau zuen esparrua da, hemen zuek zarete jabeak, zeren beldur zarete?". Ikasgelan garrantzitsuak zirela sentiarazi nahi nien; nik ez dut arazorik ezagutu, eta arazoak izan direnean moldatu egin gara. Hori eguneroko giroan antzematen da, harremanak asko hobetzen dira, baita beste irakasleekin ere.

Ebaluaketaren gaia ere, hor dago. Gaur egungo eskoletan marra antzeko bat irudikatzen da; alde batean onak kokatzen dira, eta bestean, txarrak. Nik ez dut horretan sinisten; ebaluaketak garrantzia du, baina ikasleari irakasteko gogoia eta jarraitzeko gogoia pizteko, norberarengan konfiantza izateko, aurrera egiteko. Horretarako balio ez badu, ebaluaketa ez da egokia.

Irakasleak duen autoritate izaera hori alde batera uzteak beste giro bat sortzen du gelan, orduan?

Ixiar: Autoritateari buruzko ikastaroa egiten ari naiz eta autoritatea beharrezkoa da, baina nola ulertu behar da?

Autoritatea behar da ikasleari pertsona izaten laguntzeko, hobeto funtzionatzen edo hobeto egoten laguntzeko, harreman hobeak izaten laguntzeko. Autoritatea bai, baina elkarrizketa eta errespetua alde batera utzi gabe.

Beraz, autoritatea bai, baina autoritarismoa alde batera utzita...

Ixiar: Hori da. Autoritatea ezaugarri jakin batzuekin.

Agustin: Nik uste dut ikasle baten zatitza autoritate morala duzula harekin hitz egiten duzunean, harengan sinisten duzunean. Batzuetan oso zorrotza izan behar duzu, baina ikasleak bere onerako egiten ari zarela sumatzen badu, harentzat erreferente bihurtzen zara. Despotismotik hartzen badituzu, berriz, agian kasu egingo dizute, baina itxuraz bakarrik, ez baitzara haien barrura iristen.

Metodologia jakin bat eskaini al dizue PRHk?

Ixiar: Edozein metodologiak ez du balio. Nik protagonista ikaslea dela pentsatzen badut eta arbelaren aurrean, hiru ordu laurden isildu gabe ematen baditut, non da haien protagonismoa? Ikasgelan aldaketak ikusten dira, derrigorrez sortzen dira modu berriak. Zorrotza zarela ikusten badute, eredu hori kopiatuko dute. Besteak entzun edota errespetatu behar dituztela edota malguagoak izan behar dutela esaten badiegu, guk ere horrela jokatu behar dugu.

Agustin: Nik metodologia aldetik ez dut aldaketa sakonik egin, baina harremanetan nabaritzen dut aldaketa. Irakasleekin bakarkako harreman berezia lortzen duzunean, eskolak bestelakoak dira. Errespetatzen zaituzte, en-

Ikasgelako esperientziak

tzuten zaituzte; konplizitatea sortzen da. Tutore lanetan sumatzen dut, tutoretza saioei, taldekoei zein bakarkakoei, kutsu berezia ematen diedala, haien gaitasunak garatzeko, besteen alderdi positiboak ikusteko... PRH ezagutu ez banu, agian beste era batera egingo nuke. Gelan giro polita sortzen da; ikasleak baloratuak sentitzen dira eta pertsonaren garapena garrantzitsua dela sentitzen dute. Beti saiatzen naiz horrelako jardueraren bat egiten zientzietako irakaslea naizen arren.

Eguneroko lanean PRH formazioak erakutsi dizuena baliatu duzuela esan duzue, baina ba al duzue hori azaltzeko adibide praktikorik?

Ixiar: Zu zeu ez zaude egunero era berean, eta ongi zaudenean soilik funtzionatzen duzu behar den moduan. Gimnasia modukoa da; pertsona horiek aurrera nola egingo duten pentsatu behar duzu. Neurri batean guretzat etengabeko formazioa da, beti egon behar duzu jarrera horretan. Nik pedagogia ikasi nuen eta pedagogo gazte baten esaldia irakurri nuen behin: "ikaslea dagoen lekuan pedagogia sortzen da". Hori beti buruan izan dut.

Gure ikastolan bazen ikasteko gaitasun handia zuen mutiko bat, baina harremanetan ez zuen halako gaitasunik eta bakarrik egoten zen. Behin, hizkuntzako saio batean esan nien ariketa bat egingo genuela; ea gogoratzen zuten norbaiti zerbait erantzuteko gogoz geratu ziren uneren bat. Orduan esan gabekoa, antzerki bidez esango genuela, gauza horiek zokoratuta geratzen direlako eta bizitza osoan gure barnean egoten direlako. Soziodrama egin genuen; beste pertsona bat aukeratzeko esan nien eta orduan esan ez zutena esaten saiatzeko. Ateratzen lehena, mutiko hura izan zen. Esan beharrekoa

esan zion ikaskideari eta geroztik, bion artean harreman berezia sortu zen. Ziur naiz, une hura oso garrantzitsua izan zela mutiko harentzat.

Beste mutiko bat oso despistatuta egoten zen beti. Taldeko lana egiten zutenean atzera begira egoten zen askotan. Behin galdetu nion ea zer gertatzen zitzaien, beti atzera begiratzen ikusten nuela, ondokoak zirikatzen aritzen zela... Esan zidan nik lana nola egin behar zen azaltzen nuenean, ez zuela ulertzen eta lotsa ematen ziola besteei galdetzea. "Baina horren aurrean zer egin beharko zenuke?", galdetu nion nik, eta erantzun zidan niregana etorri behar zuela galdetzerara. Nik baietz esan nion, niri soldata horregatik ordaintzen zidatela eta ez nintzela ari ikasleei mesede bat egiten, nire lana hori zela. Guk ez dugu teknikarik ikasi, baina jarrera batzuk sortzen zaizkizu. Horiek arruntak direla pentsatzen dut eta irakasle batzuek PRH egin gabe ere, izango dituztela, baina hori kontzienteago bizi izan dut eta ondoren gozatu izan dut zer bururatu zaidan eta zeinen ongi funtzionatu duen pentsatzen.

Agustin: Niretzako esperientzia pozgarrienak detaile xumeak izan dira; ikasle bati, adibidez, gela guztiaren aurrean barkamena eskatzea, garrasi egin niolako. Haiei geratzen zaizkien gauzak dira, txundituta geratzen dira. Edo eskerrak ematea eta haien artean hori sustatzea... Jarrera batzuk hartzen dira, ikasleekin harremana aldatu egiten da eta haiek sumatzen dute.

Ikasketa prozesuan eta emaitzetan ikusten al da horren eraginik? Ebaluaketa nola egiten duzue?

Agustin: Ni ebaluaketa tradizionalari ez heltzen saiatzen naiz. Ikasleei esaten diet azterketak egiten direnean, lan bat entregatzen denean, ez dela

epai bat emateko, baizik eta haiek autoerregulazio bat bizitzeko. Ikaslea da protagonista. Tresna batzuk behar ditu ikasten ari ote den jakiteko, eta egiten ditugun frogak eta ariketak horretarako direla ulertzea lortu behar dugu, gauzak menperatzen dituen edo ez jabetzeko direla, eta ez epai bat egiteko. Nik ez dut analisirik egin emaitzak hobekak diren ala ez ikusteko, baina itzaropen hori badut, kutsua hor geratzen delako.

Ixiar: Nik uste dut emaitzetan faktore askok eragiten dutela. Ordu batzuk dituzu ikasle horiekin, bakoitzak bere gaitasunak ditu, bere adimen maila. Nik ez dut miraririk ikusi, baina motibatuagoak ikusi ditut, arduratuagoak haien lanarekin eta zailtasunak zizuttenak ere, ikasgelan integratu dira. Ikasurtea amaitzean ea ikasi zuten galdetzen nuen eta baietz erantzuten zuten.

Agustin: Askotan ikusten da, ikasleak urduri sartzen direla elkarrizketetara, beldurtuta. Gero lasai ateratzen dira eta eta gurasoekin biltzen garenean ere, modu positiboan bideratzen dugu. Laguntzeko zaudela ikusten dute eta emaitzak ikusten dira. Gehiago ikasten duten edo ez, ez dakit, baina horrelako giroa badago, gusturago etortzen dira eta pentsatzen dut, horrek emaitzetan eragina izango duela.

Aholkatuko al zenukete PRH formazioa jasotzea?

Agustin: Bai. Eta ez bakarrik irakasleei, baizik eta haien bizimodua eta harremanak hobetu nahi dituzten guztiei. Hori bai, aldatzeko edo hobetzeko prest sentitu behar dute, behar hori sentitu behar dute, zeren PRHk konpromisoa eskatzen dizu zure buruarekiko eta ingurukoekiko.

Ixiar: Niretzat lanarekin disfrutatzeko bidea izan da eta edonori gomen datuko nioke.



Andoni Lizeaga



PRH formazioa jaso duzu. Zerk bultzatu zintuen formazio hori jasotzera?

Orain dela urte batzuk izan nuen PRHren berri. Orduan, ez nekien zer baina, zerbaiten bila nengibilen. Zalantzak ere banituen eta formazio hori jasotzen ari zen gizon batenganajo nuen. Hark bere bizipena kontatu zidan eta xehetasun askoren artean azaldu zidan PRHk asko lagundu ziola orduan zena izatera iristen. Niri deigarriak egiten zitzaizkidan bere begirunea, goxotasuna, zuzentasuna, gardentasuna, laguntzeko prestasuna... Horrek guztiak behar nuen bultzada eman zidan. Orain jabetzen naiz, garai hartan harengana eta beste pertsona batzueganajo ikusteko gai nintzena ez nekiela nire baitan antzematen, eta nire-nireak diren dohain horien bila nengibilela.

Zer eskaini dizu PRH formazioak pertsonalki?

Garrantzitsuena nire izate positiboa ezagutzea izan da. Nire nortasuna osatzen duten dohainak ezagutzeko bidea eskaini dit eta haiekin bizitzeko gaitasuna garatzeko laguntza ere bai. Ildo horretatik, ohartu naiz pertsona oro sakonki positiboak garela, eta gauza bat dela funtsean zer garen eta, beste bat, askotan, zer egiten dugun. Hau da, sarritan gure ideiek, aurreiritziek, sentsi-

Andoni Lizeagak ere, PRH formazioa jaso du. Ibai Ikastolako zuzendaria da eta formazioak eguneroko lanean asko lagundu diola dio. Pertsonalki balio izanak, lanean bere isla izan du. Ikasleak, lankideak eta gurasoak, orain beste era batera hartzen dituela esan digu Andonik eta entzute-aktiboa praktikatzeko oso baliagarri zaiola eguneroko lanean. Ez du zalantzarik; denentzat da gomendagarri PRH formazioa.

bilitateak, egoerak edo denetik pixka batek eraginda jokatzeko dugu, eta gertaera horien atzean zer dagoen ulertzea komeni da. Beraz, neure burua hobeto ezagutzeaz gain, besteena ere ulertzen lagundu dit, beste era batera esanda, izaten eta elkarrekin bizitzen. Horrez gain, erabakiak hartzerakoan nola kokatu behar dudun ikasteko aukera eman dit. Bulkada jakin batzuetatik soilik abiatu beharrean (adibidez, ideiak edo gustuak), nire pertsona bere osotasunean kontuan izanik (esate baterako, nahi sakonak eta gorputzaren ahalmena ere aintzat hartuz) eta, horiez gain, gainerako pertsonak eta egoera bera ere kontuan hartuz erabakitzea.

Eta profesionalki?

Formazio horren barnean, neure buruari jarri diodan helburuetako bat, ni pertsona eta ni profesionala bat egitea izan da. Hau da, nire prestakuntza akademiko-teknikoaz gain, nire lantresnarik garrantzitsuena ni neu izatea da. Sarritan, lanera noanean, egun horretan ingurukoei eskaintzeko zer dudun galdetzen diot neure buruari. Aurrean izango ditudan ikasle, lankide eta gurasoen aurrean jarrera horretan kokatzeak asko laguntzen dit ni neu izaten eta, era berean, profesionalagoa izaten. Oso argigarri egiten zait baita ere, pertsonak behar arrunt, asegabeko behar afektibo eta nahi-sakonak arabe- ra ulertzea.

Ikasitakoa ikastetxean aplikatzeko modurik izan al duzu?

Nire ustez, PRH formazioa ez da besteek aplikatzeko zerbait, norberak aplikatzeko baizik. Adibidez, niri baliagarri zait entzute-aktiboa praktikatzeko, bai ikasle, bai lankide eta bai guraso edo gainerako pertsonekin. Hau da, nire ideia eta iritzietatik haratago, eta juzgurik egin gabe, hitz egiten ari zaidan horren mezua eta bizipena ulertzeko jarrera irekiarekin entzutea. Begirune osoz, berehala erantzun gabe eta aldi berean nire baitan hari eskaintzeko zer ematen zaidan detektatuz (laguntzeko bulkada, zerbait adieraztea, isiltasuna eskaintzea...).

Aldaketarik sumatu al duzu ikasleengan edo ikastetxeko giroan?

Esango nuke gaur egun ikasleak errazago, lasaiago, hurbiltzen zaizkidalda. Horrek adierazten dit ni aldatu naitzela, naturalago agertzen natzaiala.

Ikastetxean ere, guztiok harmonia-tsua gaudela iruditzen zait. Baina, ziur aski, hori nik bizitza ikusteko dudun jarrerarekin eta nire baitan sumatzen dudun ziurtasun handiagoarekin lotuta egongo da.

Gomendatuko al zenieke gainerako irakasleei PRH formazioa jasotzea?


Niretzat hain baliagarria dena edonorentzat ikusten dut gomendagarri. Hasteko, norbera zoriontsuago izateko eta ondoren ingurukoei ere bide horretan laguntzeko. Horrelako formazio aukera bat irakasleentzategabeko prestakuntza planen barruan jasota egotea nire ametsetakoa bat da.

alfonso sastre

ELKARRIZKETA

Filosofoa eta idazlea

// Gure hitzik preziatuenak
"elkartasuna" izan behar du beti //



alfonso sastre

E

// Haurrei esan behar zaie injustiziaren aurkako erresistentzia, bidezkoa izateaz gain, dibertigarria ere izan daitekeela, eta, era berean, jakin behar dute ez dela ona, ezta dibertigarria ere, dagoen horri besterik gabe "lotzea".

//

Aurkezpenik behar ez duen gizona da Alfonso Sastre. Bizi guztian zehar egindako lanari buruz aritzeko, sarreratxo hau ez, aldizkariaren ale mordoxka beharko genuke. Esan dezagun, laburbilduta, filosofoa eta idazlea dela. Genero guztietan aritua da, baina antzerkigintzan aritu da, batez ere, eta zentsuraren itzala izan du gainean urte askoan. Irakasle ere ibili zen Kaliforniako San Diego unibertsitatean, 1987-88 ikasturtean.

82 urte bete berri ditu, Madrilén, 1926. urtean, jaio zen euskal herritar honek. Izan ere, Telesforo Monzonek behin esan zion moduan, euskal nortasuna du Sastrek. Euskal Herriak erakarrita, Hondarribira bizitzera etorri zen Eva Forest emaztearekin batera, duela 30 bat urte.

Gai askoren gainean idatzi du Alfonso Sastrek bere ibilbidean zehar, eta, tarteka, hezkuntzari buruz ere aritu da.

Urteak daramatzazu utopia aztertzen, existitzen denarengandik urruntzeko modu gisa, eta etorkizun hobearen aldeko apustu gisa. Hezten ari garen haurrek etorkizun hori biziko dute. Nolakoa izan beharko luke egungo pedagogoa utopikoak? Zein da egungoa baino bidezkoagoa izango den gizartea lortzeko kontuan izan behar dugun ideia nagusia hezterakoan? Zuk idatzi duzu "etortzear dauden garaietan borroka handiak izango dira sozialismo errearen eta egiazkoaren alde...". Sozialismo errearen hori lortzeko, eskolan zein ikasgai izango litzateke oinarritzakoa?

Haurrei ongi azaldu beharko litzateke (Historiatik adibide adierazgarriak hartuta) ezinezko jotzen ziren gauza asko egin direla, eta ikusi dela ez zirela ezinezkoak, baizik eta eragozpenak zeudela, bai zientziaren eta teknika mailagatik, bai dirudunen boterearengatik ere. Dirudunek, besteak beste, gizartearentzat zortzi orduko lanaldia erokeria zela zioten. Gaur egun, badira "iraun" dezaketen gauza asko, baina izatea eta "iraunkortasuna" ukatzen zaie. Beraz, haurrek zalantzan jar dezatela zerbait ezinezkoa dela esaten dietenean. Adibidez, sozialismoa ez da ezinezkoa, eta ahal den guztia egin behar da ideia berriekin eta praktika berriekin gauzatu dadin.

Uste duzu bidezkoa ez den egoeraren aurkako erresistentzia mantendu behar den balio pedagogikoa dela, ala hezkuntza haurra errealitatera egokitu dadin bideratu behar dugula, 'egokitutako haurrak' sortzeko?

Haurrei esan behar zaie injustiziaren aurkako erresistentzia, bidezkoa izateaz gain, dibertigarria ere izan daitekeela, eta, era berean, jakin behar dute ez dela ona, ezta dibertigarria ere, dagoen horri besterik gabe "lotzea".

Dialektika defendatzen jarraitzen duzu, 'kontrako ideien arteko konfrontazio bidez aritzen den

sistema' gisa definituz. Hori da, hain zuzen ere, hezkuntzan aplikatu nahi genukeena. Nola egiten da? Eredua pedagogiko utopiko-dialektikoak izatea al da? Laguniezaguzu eredu hezitzaile horretan pentsatzen.

Haurrak ez dira "tabula rasa" moduan jaiotzen, non edozer gauza edo nola idatz daitekeen. Ondoretasun genetiko baten eramaile dira, eta jaiotzen direnetik -hau da, jaiotze aurretik- esperientzia aberatsak pilatzen dituzte. Haurrak, helduek behar bezala tratatzen badituzte, beren mezuen eramaile gisa agertzen dira: jakin gabe, berezko mezuen eramaile dira, eta baita esperientziaren bidez jaso dituzten mezuen eta haien barnean kokatu diren mezuen eramaile ere. Hitz egin dezagun haiekin. Baina, jakina, haiekin harremanetan izaten diren helduen (askotan haien gurasoen) ezjakintasuna baztertu behar da, eta baita haurrek jasan dituzten telebista orduak ere.

Ezkontasuna jendeaz jabetzen ari da: 'postmodernitate', 'historiaren amaiera, utopiaren amaiera', 'pentsamolde bakarra'... Zer egin dezakete hezitzaileek? Itxaropena erakutsi diezaiakete datozen belaunaldiei, iruzur egiten ari diren irudipenik izan gabe?

Ez dezagun inoiz gezurrik esan, txikiak izanik ere, baina pentsa dezagun etorkizuna haiek pentsatzen dutenaren eta egiten dutenaren arabera izango dela hein handi batean, eta arrazoirik badela, behintzat, itxaropenik izateko.

Sarritan, heziketaren eta manipulazioaren arteko muga zehazten arazoa dago. Manipulatu gabe hez al daiteke? Zentzurik ba al du "gurasoek beren seme-alabak nahi duten eran hez ditzakete" esaldiak?

Nik baneki! Baina pentsatzen dudana da ezin dugula naturan konfiantza izan, hori gure gaitzak sendatzeko konponbide zoragarria izango balitz beza-



la, natura "ongi absolutua" balitz bezala (konta diezaiagun Kaspar Hauser-en gertaera, edo beste "haur basati" batzuen gertaera, Tarzanen mitoaz gain). Uste dut egia dela naturan esku hartu behar dela (hori manipulatzeko da), eta "kultura sartu" behar dela, "oihaneko legeak" diotenaren arabera mugitzen diren beldurrak eta mehatxuak indargabetzeko. Hasteko, ura duen etxea, ahal bada ur hotza eta beroa, txabola zikin bat baino bizileku hobea da, nahiz eta txabola hori oso "naturala" izan. Argi dago esku hartzea ez dela zaplaztekoak jotzea, baina izan daiteke haurrei gure arbasoen esperientziari buruzko datuak ematea (Historia), eta guk geuk bizitzan bizi izan ditugun esperientzien berri ematea. Egia da -eta esateak ez dakar manipulazio txarrik- bide batzuetatik leku txarretara iristen dela, eta, batzuetan, bide horietatik ez dagoela itzulerarik edo aterabiderik. Hori dakitenez, guztia esan behar diete oraindik ez dakitenei.

Azken urteetan ahalegin berezia egin da eskoletan haurra 'sozializatzeko'. Haur bakoitzarengan nortasun indartsua eta indibiduala lortzeko ahalegin bera egin behar zela uste al duzu?

Paradoxa handia dela dirudi, agian, baina egia da izen hori merezi duen ga-

rapena banakotasunen baieztapenean eta babesean soilik oinarri daitekeela. Gainerakoa ez da sozializazioa, nahaspila baizik, edo beste hitz batzuk erabiliz, zopa bat. Internazionalismoa, soilik, gainerako nazioen eta askotariko kulturen existentzia onartzen bada izango den moduan. Beste guztia mota okerreneko kosmopolitismoa da: Coca-Colaren banderaren antzekoak diren banderen azpian egiten den homogeneizazioa. Berritoki datorkit burura 'zopa' hitza.

Nola konpon daiteke eskolan korapilo hau? Sozialismoa, kooperatibismoa edo 'denon arteko' zerbait dugunean, zuhurkerian ibiltzen gara, eta lan gutxiago eta okerrago egiten dugu; kapitalismoa, enpresa librea dugunean, 'arain handiak txikia irensten duenean', dugun onena ematen saiatzen gara. Txikitatik ikusten dugu haurrak bere gauzak kontu handiz zaintzeko joera duela (bere bizikleta, arkatzak, bideo jokoak...), eta ikasgelako materiala puskatzeko edo era okerrean erabiltzeko joera duela: papera, margoak... Zein alderdi psikologiko hezi behar dira jokabide horiek haurtzaroan bertan gainditzeko?

Gai interesgarria, arazo handia! Go-

alfonso sastre

E

// Haurrak, berezko mezuen eramaile dira, eta baita esperientziaren bidez jaso dituzten mezuen eta haien barnean kokatu diren mezuen eramaile ere. Hitz egin dezagun haiekin. Baina, jakina, haiekin harremanetan izaten diren helduen (askotan haien gurasoen) ezjakintasuna baztertu behar da, eta baita haurrek jasan dituzten telebista orduak ere.

//

gora ezazue Makarenko pedagogo bere buruaz beste egitekotan izan zela bere kargu zituen gazteak, inork ikusten ez zituenean, berekoiak zirela eta solidarioak ez zirela konturatu zenean (irakurdezalairakurri ez duenak autore horren “Poema pedagogikoa”). Hori izan da garai haietan saiatu zen “sozialismoaren” oztopoetako bat. Eskuinak “giza natura” horrelakoa dela esaten du. Esan dezagun guk “giza izaera”, egungo une historikoan. Baina “izaera” hori ere alda daiteke. Zalantzarik gabe, delako “gizaki berria” aurrerapen handiegiaekin iragarri da. San Pablok egin zuen, eta joan den mendean, baita Ernesto Che Guevarak ere.

Hezitzaile batzuek ezinegona sentitzen dute teknologismoaren, positibismoaren, pragmatismoaren, posibilismoaren... egungo mirespena ikusita, eta, beste alde batetik, egiaiekiko maitasuna, justizierekiko maitasuna, ontasunarekiko maitasuna, ardua, eskuzabaltasuna... eta horrelako balioak landu nahi lituzkete, egungo gizartean ikusten ez duten oreka lortu nahian. Zer egin dezakete?

Ez da zalantzarik! Lan egin dezagun? pedagogoek, artistok eta lanbide guztietako langileek? egiaien maitasunetik eta egiaien maitasunaren alde, bidean



edonor geratzen dela ere, horrela esatea enfatiko samarra izan arren.

Zer iritzi duzu hain onartua den Zientziaren eta Letren arteko bereizketaz?

Bereizketa horrek, ikasketa planetan berehalakoa eta erabatekoa denez, bi multzotan banatzen gaitu: zientziarako jendea, alde batetik, eta letretako jendea, bestetik. Hau da, literatura arloan ezjakinak direnak, alde batetik, eta matematiketan ezjakinak direnak, bestetik. Ez luke horrela izan behar! Ez genuke gure ezjakintasunean alaiki atsedan hartu behar, askotan sorbaldak altxatuz egin dugun moduan: “Ni letretakoa naiz!”.

Eskola gizartearen behar ekonomikoen zerbitzura jartzeko joeraz ba al duzu iritzirik?

Idea hori ez dut gustuko, are gutxiago ideia horren bertsio “sozialista”.

Batzuetan eskolan bereizketa hau egiten dela ikusten dugu: gutxi gorabehera, hamar urte bete arte sentimendua, irudimena, gogo bizia... lantzen dira eta geroago, eremu arrazionalagoan sartzen gara, irudimenaren lantzea desagertzen joaten da. Zuk, helduen pentsamendu arrazionalan irudimena oinarritzeko dela diozu. Zer arrazoi dago irakasleak eta hezitzaileak irudimena lantzen jarrai dezaten konbentzitzeko eta gainera, giza arrazioak duen (oinarrizko?) gaitasun moduan? Bururatzen al zaizu antzerkiari eta fisikari (adibide bat jartzearren) garrantzi bera emango liokeen instituturik?

Uste dut irudimena egitura dialektiko gisa ulertzeak -irudimena, errealitatearekin harremana izateko modu gisa- aporia hori konpontzen duela.

Zer egin daiteke gure haurrak, behartsuaren eskuari edo patera baten atxiloketari axolagabetasunez begiratzen dioten

gurasoen alboan, begiak dir-dir dituztela, diru asko izango dutela imajinatzen ikusten baditugu?

Ideologia horren kontra borrokatu behar da, baina gaur egun arte gutxi gara, eta gaizki moldatzen gara gainera. Gure hitzik preziatuenak 'elkartasuna' izan behar du beti.

Haurrei beren jendearekiko, lurrarekiko, herriarekiko, nazioarekiko maitasuna irakatsi al dakieke, norberekoikerian, txaubinismoan, arrazakerian, bazterkerian erori gabe?

Horretan saiatu behar dugu, eta zailtzarik gabe, ez da ezinezkoa, gaur egun oztopoak dauden arren.

Sartrearen alboan hausnarketa eginez, matematika ikasketak ere "ikuslearen inguru etiko-politikoetan eta inguru afektiboetan" mugitzen direla defendatu duzu. Ideia horrek talka egiten du zabaldua dagoen beste ideia batekin, hau da, zientziak sorkuntza neutralak direla dioen ideiarekin. Argituko al zeniguke? Horrek ba al du zerikusirik arrazoa/irudimena antinomia gainditzeko egiten duzun proposamenarekin?

Egia da Sartre gai horren gainean lan egin zuela, eta gogoan dut, umorez, eskuineko eta ezkerreko ekuazioak izan badirela baieztatzerira iritsi zela. Egia dena da ekonomialariek aurkeztutako dizkiguten zenbakiak ez direla beti errugabeak.

Zentzurik ba al du haurrei askatasunaz hitz egiteak, kontzeptu horrek haien buruan "nahi dudana egitea" esan nahi badu?

Zentzua du, aldrebeskeria hori gertatzen den arren.

Ba al da gure haurrak euskara erabiltzera bultzatzeko arrazoirik, ingelesaren indarra horren handia izanik?



Jakina! Argi izan behar dugun ideietako bat da pragmatismoa eta ezarrita dagoenaren iraunkortasuna mantentzearen ideia, ideia zaharkituak direla, batez ere, "XXI. mendeko sozialismoaren" euskarri teoriko gisa Latinoamerikan lantzen ari den ezker berriaren ikuspuntutik. Era horretan, Utopiaren ideia berri bat zabaltzen da.

Definituko zenuke zer den haurra?

Haurra era guztietako azpikeriek mehatxatutako izakia da, eta haren etorkizuna-lagun diezaiozun horretan zuek, pedagogoez, eta guk, artistok-munduko jendearen arteko elkartasun-borroka handian sartzea izango da. Mundu horretan sartzea, gaur egun oraindik -noiz arte izango da horrela?- infernua den arren.

Bizitzak musikarekin zerikusirik izaten ez duela dioen arren, *Sonata en mi (menor)* izenburupean autobiografia idazten joan da Alfonso Sastre. Bere bizitza "zatika" azaldu du bertan, urteak hamarnaka hartuta, eta urteek aurrera egin ahala, postdatak gehitzen joan da. Bizi izandakoari begirada, bizi izan duenaren begietatik; Alfonso Sastreri buruz gehiago jakiteko aukera.

IRAKUTREZIN

Kutremaileek egindako aldizkaria

Liderrak eta taldeak, eraldatze prozesuaren gakoak

AITOR URIARTE. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Gazteentzat eta gazteek egindakoa den Irakutrezin aldizkaria izan da edozein taldetan hizkuntza erabileran eragiteko Ttakun Kultur Elkartetik baliatu dugun metodologia. Eta aldizkariarekin lortutako emaitzek esku-hartze horren gakoak irudikatzen dituzte.

Metodologia berri horrek taldean eta lidergoan du oinarri. Eraldatze prozesua proposatzen da, martxan dagoen edo propio horretarako sor daitekeen jarduera baten bidez. Taldeari, ezaugarri jakinak izango dituen erronka proposatzen zaio, eta liderren laguntzaz, aurrera atera behar dute.

Hezitzaileek Asko Egin Dezakete metodologiaren bigarren urratsa da (metodologia horri buruzko informazio gehiago aurki dezakezue HIK Hasi aldizkariaren 101. eta 102. aleetako '...goza nazazu gehiago' atalean. Orain arte, haur edo gazteen hizkuntzan modu zuzenean eragiten genuen, eta bakarkako harremanean edo talde txikietan, hizkuntza ohituretan, modu errazean eragiten genuen. Era berri horretan, taldekideen arteko hizkuntza erabileran eragiten dugu, eta dinamizatzailea apurka-apurka desagertzea lortzen dugu.

Irakutrezin 1997. urtean kaleratu zen, eta gaurdaino, hiru erakunderen elkarlanaren emaitza izan da: Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzua, herriko ikastetxeak eta Ttakun Kultur Elkartea. Orain bi urte, metodologia berria martxan jarrita, DBHko ikasle batzuei desafioa egin, eta erredakzio taldea eratuta, aldizkaria berritzea proposatu genien. Aldizkarian berrikuntza nabarmenak lortzeaz gain, taldea motibatzea lortu dugu, eta gazte gehiagok irakurtzen dute aldizkaria.

Lasarte-Oriako ikasle talde batek egiten du Irakutrezin aldizkaria. Ttakun Kultur Elkartea dinamizatzen du haien lana; bi dinamizatzaile izaten dira beraiekin astelehenetan egiten dituzten bileretan, eta hamar bat lagun aritzen dira erredakzio taldean lanean.

Ikasturtean lau ale argitaratzen dituzte, eta Lasarte-Oriako ikastetxeekin elkarlanean osatzen dituzte Irakutrezin aldizkariko orriak. Ondoren, Lasarte-

Oriako ikastetxeetan banatzen dute; Landaberri ikastolan, Sasoeta ikastetxean eta Institutuan.

Kutremaileak dira proiektuaren oinarria; Tolest, Prexioxi, Pio-pio, Segismunda, Apreti Woman, Oliyos, Iñixi, Aneta... goitizenez sinatzen dituzte kazetari gazteek beren lanak, eta kolaboratzaileei ere gauza bera egiteko aukera ematen diete. Izan ere, kolaboratzaileen lana ezinbestekoa da. Orain arte



24 orrialde izan ditu aldizkariak, baina martxoan kaleratuko duten alea 40 orrialdekoa izango da.

Irakutrezin egiteko eskolaz kanpo egiten dute lan. Lan guztia haien esku dago; gaiak aukeratzetik hasi eta make-tazioraino. Iaz, Landaberri ikastolan lantegia zuten, eta irakasleak Irakutrezin aldizkarirako lanak agintzen zizkien, baina aurten ez da halakorik. Dena den, gogoan duen edonork har dezake parte Irakutrezinen.

Kutremaileak kazetari

Amaia Amiano, Jon Altuna eta Irati Perez kutremaileekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta Irakutrezin aldizkarian askotariko gaiak lantzen dituztela esan digu Jonek: "Pil-pilean dauden gaiak izaten dira, egunerokotasuna du-

tenak, baina herriari lotutakoak. Herria, eskola... askorik ere, ez dugu zabaltzen; inguruan gertatzen diren gauzak agertzen dira. Elkarrizketa, askotan, kanpoko norbaiti egiten diogu, eskolara hitzaldiren bat ematera etortzen badira, aukera aprobetxatzen dugulako".

Atal berriak sartu zituztenean, bultzada eman zioten aldizkariari: "Hasieran Irakutrezin ez zuen inork irakurtzen, baina gu hasi ginenean, atal berriak sartu genituen eta gatz pixka bat eman genion, txutxumutxuen atalarekin, adibidez. Interesatzen zaizkigun gaiak lantzen hasi ginen, herriko gaiak... Lehen alde batera utzita zegoen, jendeak eskola galtzeagatik ematen zuten izena, eta orain irauli egin dugu", azaldu digu Amaiak. "Lehen zegoenarekin alderatuta, oraingo Irakutrezin kritikoagoa dela iruditzen zait niri; hainbat ikuspuntu biltzen ditu, eta formatua lehengoa baino dinamikoagoa da", gaineratu du Jonek.

Euskara zabaltzeko tresna ere ba-

dela azpimarratu nahi izan dute kutremaileek: "Ez daude aldizkari asko herrian, euskaraz. 'Txintxarri' herri aldizkaria dago, baina gazteentzat ez dago aukerarik. Lasarten, Sasoetan esaterako, ez da euskara asko hitz egiten, eta Irakutrezinek informazioa euskaraz eskaintzen die", esan digu Leirek. Dena den, denek ez dute irakurtzen: "Guk lana egiten dugu eta gero askotan ikusten dugu, institutuan, erdaldun batek hartzen duela eta begiratu ere egin gabe zakarretara botatzen duela. Horrek min ematen du", gaineratu du.

DBHko ikasleek egiten dute aldizkaria, Batxilergoko batzuk ere badiren arren, eta datorren urtean beste kazetari batzuek hartu beharko dute lekukoa. Ondorengoak gogoz datozela esan digute kutremaileek, eta ikasleen artean harrera ona duela aldizkariak. Beraz, oraingoz, etorkizuna ziurtaturik du Irakutrezinek.



Irakutrezin aldizkariko zenbait kutremaile.

Tolosako Paper Eskola Zuntz artean ikerlari

Tolosako Paper Eskola 1965. urtean sortu zen. Garai hartan, industria sektoreak teknologia berrietan prestatzeko beharra ikusi zuen, eta Tolosako eskualdea hautatu zen proiektua aurrera eramateko, papergintzan herriak duen tradizioarengatik. Ikastetxean, kimikarekin zerikusia duten zikloak egiten dira eta, horrez gain, ikerketa zentroa ere bada.

Miramongo Zientziaren Kutxaguneko azokan, Experimentaldian, Paper Eskolako ikasleak eta irakasleak izan ziren. Guztira 16 ikasle izan ziren, ziklo guztietakoak. Bertan, Tolosako Paper Eskola BHIIn lantzen diren gaietan erabiltzen dituzten hainbat tresna zeuden erakusgai. Proiektuak abian jartzea eta hainbat esperimenteren bidez jorratu nahi zutena publikoari azaltzea izan zen ikasleen ardura. Guri, Jone Irastorza irakasleak azaldu zizkigun tresna horien nondik norakoak.

“Hainbat egur mota ekarri ditugu, eta mikroskopioen bitartez ikus daitezke horien arteko aldeak. Gaur egun, papera egiteko gehien erabiltzen diren egurrak eukaliptoia eta pinua dira. Garai batean, kotoia eta beste egur mota batzuk ere erabiltzen ziren, baina, orain, batez ere bi horiek”, dio irakasleak.

Ikus daitezkeen egurren artean dagoen alderik handiena hau da: eukaliptoak zuntz motza du, eta pinuak, ostera, zuntz luzea du. “Zuntz desberdinak izateak paperari hainbat ezaugarri ematen dizkio. Adibidez, arropagorde-



tzeko paperezko poltsak egin nahi baditugu, pinua komenigarriagoa da, zuntz luzeagoa duelako eta erresistentzia handiagoa duelako. Idazteko paper gisa, eukaliptoia egokiagoa da zuntz motzak dituelako, zuriagoa delako eta, inprimatzeko ere, egokiagoa delako”, esan digu Jonek.

Jonek, normalean, bi zuntzak nahasten direla dio, papera ez dela izaten erabat pinua edo eukaliptoia. “Beste herrialde batzuetan izeia ere erabiltzen da, zuntz luzekoa. Zuntz motzari dago-kionez, makala ere erabil daiteke, baina gaur egun Euskal Herrian pinua eta eukaliptoia dira erabiliak. Beste egur mota batzuk ez dira baliatzen, altzariak egiteko erabiltzen direlako, eta hortaz, garestiagoak dira. Bestalde, gaur egun, birziklapenari esker, askoz zuhaitz gutxiago behar dira”, azaldu digu irakasleak.

Ikasleek prozesu osoa ezagutzen dute: “Lehenik eta behin, egur motak bereizten erakusten diegu. Ondoren,


egurra xehatzen da, ontzi handi batean egosiz. Erreaktibo kimikoekin egoten da, bi orduz, eta egurra egosita ateratzen da, zuntzak bananduta. Une horretan, kolore naturala dute oraindik; hortaz, beste produktu kimiko batzuk erabili ohi dira papera zuritzeko. Adibidez, ur oxigenatua. Gero eta kloro gutxiago erabiltzen da, oso kutsatzailea delako”. Egurraren prozesua Papergintza Industriak (goi mailako zikloa) eta Papergintza Eragiketa (erdi mailako zikloa) zikloetako ikasleek ikasten dute.

Paper eskolako ikasleek birziklatzen ere ikasten dute, Jonek adierazi digunez: “Ez soilik papera, baita tetrabrik ontziak ere. Tetrabrikak aluminioa du alde batean, eta bestean, plastikoa. Bi geruzak kenduz gero, erdian zuntzez egindako pasta dago. Pasta horrekin, zakuak egiteko papera eta kartoia egin daitezke, adibidez. Ikasleek, gaur egun, industrian egiten diren zenbait prozesu ikasten dituzte”.

Zuntzei behatzeko mikroskopioez

gain, beste hainbat gauza ere bazeuden Tolosako ikastetxearen txokoan. Pantailetan zuntzak ikus zitezkeen, eta esentziak ateratzeko esperimendu bat ere bazegoen. “Kartutxo honen barruan belarra jartzen dugu. Izan daitezke algak, limoi azalak, laranja azalak, arrosa hostoak... Kartutxoaren azpian, matraza dago, 95 graduko alkoholarekin. Alkohola berotzean lurrundu egiten da eta belarren klorofila ateratzen joaten da. Ateratzeak hotzean mantentzen saiatzen gara, eta zikloa errepikatu egiten da ura garden atera arte, hots, klorofila guztia zurrupatu arte. Ateratzeen bitartez, adibidez, arrosa hostoak sartu baditugu, arrosa esentzia lortuko dugu kartutxoan”, esan digu Jonek.

Bestalde, gizakiaren zelulak ikusteko aukera ematen zuen beste mikroskopio bat ere bazegoen. Norberaren ahoko muki-mintzetik lagina hartu eta bertan begira zitezkeen zelulak. Eta tipularen zelulak ere ikus zitezkeen beste mikroskopio batean. “Horiek hexagonalak dira, bereziagoak. Pertsonen zelulak, aldiz, biribilagoak dira, eta erdian nukleoa dute. Ahoko muki-mintzetik hartutako lagina kristal lilarekin tindatzen da, eta estalkia jarritz, ongi ikus daitezke gizakiaren zelulak”.



Tolosako Paper Eskola

Erdi mailako heziketa zikloak:

- Laborategia
- Kimikagintza eragiketak
- Oregintza eta papergintza eragiketak

Goi mailako heziketa zikloak

- Analisia eta kontrola
- Kimikagintza industriak
- Ingurumen kimika
- Papergintza industriak

Sormenaren garrantzia

Nola bultzatu sormena eskola ingurunean?



María Dolores Prieto

MURTZIako UNIBERTSITATEko IRAKASLEA.
HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA KATEDRADUNA

Jerusalemen Filosofia eta Letretan lizentziatua, AEBetan eta Ingalaterran ere ikasketak egin ditu María Dolores Prietok. Hainbat liburu idatzi ditu eta sormena lantzearen garrantzia azpimarratzen du. Hain zuzen ere sormena lantzeko eta bultzatzeko prozesuei buruz hitz egin digu María Dolores Prietok.

Sormena duten pertsonen, arazoei erantzun berriak emateko gaitasuna izaten dutela dio eta erronkei era berezian eusten dietela, ez dute irakaslearen beharrik, ezta jarraibide askoren beharrik ere. Irakaskuntza sortzailearen oinarriak gerturatu dizkigu irakasleak.

Zer da sormena? Sormena adimen mota gisa agertzen den prozesua da, eta adimen horri pentsamendu dibergentea gehitu behar zaio. Sormena, guztiok dugun gaitasuna da eta arazo berriak, irtenbide irudimentsuen bidez konpontzeko balio du.

Sormena neurtzeko lau ezaugarri daude:

1.- Jariotasuna. Dugun ideia kopurua.

2.- Malgutasuna. Bakoitzak ideiak azaltzeko duen gaitasuna. Malgutasuna asko goraiatzen den bertutea da. Nik Pletraz hasten diren izenak esateko eskatzen badut, normalean ohikoak bururatzen zaizkigu. Malgutasuna patroi hori gainditzea litzateke.

3.- Originaltasuna. Erantzun berriak emateko gaitasuna.

4.- Lanketa.

Sormena duten pertsonen, arazoak beste era batera planteatzeko eta erantzun berriak emateko gaitasuna izaten dute. Edozein gairen inguruan duten oinarritzko ezagutza errentagarri egiten dute eta modu azkarrean erabiltzen dute hain sortzaileak ez garen pertsonen aldean. Pertsona horiek nortasun berezia dute eta erronkei eusten diete, amore eman gabe. Arriskuak beren gain hartzen dituzte eta irakasleari "hau erraza da, eman zailagoa den zerbait!" modukoak esaten dizkiote.

Sternbergen teoriaren arabera, hau da, adimenaren baliabideetan oinarritutako teoriaren arabera, sormena duten pertsonak, berritzaileak dira, ez dute irakaslearen beharrik eta ez dute jarraibide askoren beharrik; globalak dira, basoa bere osotasunean ikusten du-

te eta sintesia egiteko gai dira. Pentsamendu liberalaren estiloa dute; ez dituzte ohiko ereduak erabiltzen, ez dituzte erabiltzen gelako gainerako haurrek erabiltzen dituzten ikuspegiak, ikuspegi zabalagoa dute. Horregatik dira malguak, eta bestelako ideiak onartzen dituzte. Baina gure eskoletan ez da horretarako lekurik izaten, testuinguruak oso zorrotzak dira, oso itxiak, eta sormena mugatzen dugu. Zenbat aldiz entzun ditugu "Ixildu zaitetz eta ez esan tontakeriarik!" modukoak ikasle batek zerbait esaten duenean!

Irakasleei helarazi beharreko mezua hau da: eskolan testuinguru zabalagoak sortu beharko genituzke, ideia eta produktu sortzaileak saritu beharko genituzke. Eta sormena etapa guztietan landu beharko genuke; izan ere, Haur Hezkuntzan sormena lantzen dugu, baina Lehen Hezkuntzan edukien arabera funtzionatzen hasten gara eta sormena mugatzen hasten gara.

Sormena laguntzeko oinarriak

Sormena laguntzeko, oinarri hauek jarrai ditzakegu:

1.- Pentsamenduaren oinarritzko trebetasunak eraiki. Hori, oinarritzkoa da sormenaren garapen potentzialerako.

2.- Eredu zehatzetan oinarritzko ezagutza lortzea bultzatu. Sormena ez da beti ezagutzaren ondorio zuzena, baina ezagutza nolabait, bada sormena bultzatzeko baldintza.

3.- Jakin-mina eta esplorazioa piztu eta saritu. Haur sortzaileak, sortzaileak ez direnak baino jostalariagoak izaten dira. Haur sortzaileek azalpenak eska-

tzen dituzte eta eszeptizismoz hartzen dituzte “jakinak” edo “begi bistakoak” diren erantzunak.

4.- Sormenerako beharrezkoak diren motibazio baldintzak sortu. Motibaziorik ez bada, norberaren sormen potentziala garatzeko aukera gutxiago dute.

5.- Konfiantza eta arriskua bere gain hartzeko gogoia bultzatu. Askotan ikasle zail moduan ikusten dira, inkonformistak direlako, baina horrek lotura zuzena du izaera sortzailearekin.

6.- Sormenak motibazioa eta ahalegina bultzatzen ditu, eta ideia hori bultzatu behar da. Ahaleginik egin ezean, ez dute berritzailea den ezer egingo.

7.- Aukeratzeko eta aurkitzeko aukera eman. Sormena duten ikasleek gogo handiagoz hartzen dituzte haiek aukeratu dituzten jarduerak, irakasleak edo beste norbaitek agindutakoak baino.

8.- Trebetasun megakognitiboak garatu. Buruaren auto-gobernuak norberaren baliabide kognitiboen zuzendari aktibo bihurtzea dakar.

9.- Ekintza sortzaileak egiteko teknikak eta estrategiak irakatsi. Ikasleei pentsatzen laguntzeko eta arazoak konpontzen laguntzeko teknika asko daude.

10.- Oreka eskaini. Hurrek haien sorkuntza ikasgelan azaltzeko gogoia izaten dute.

Irakaskuntza sortzailearen oinarriak

Gurasoek eta irakasleek haurrak estimulatzeko moduak ikas ditzakete haiek jakin-mina izan dezaten, arriskuak har ditzaten, arrisku eta erronkin goza dezaten eta irudimena erabil dezaten. Estimulazio horrek giro lasaia eskatzen du eta giro hori lortzeko, ez litzateke sormena alde batera utzi behar, eskola curriculumak eskatzen dituen erantzunak emateko.

Eskola informala goa izatea proposatzen dugu. Hurrei imajinatzeko, sortzeko eta haien kabuz azaltzeko aukera gehiago eman behar zaizkie.

Irakaskuntza sortzaileak, lehenago aipatu dugun moduan, irudimena, malgutasuna, originaltasuna eta egokitzeko gaitasuna eskatzen ditu eta baita curriculumaren barnean ematen diren arazoak konpontzeko erabiltzea ere. Beharrezkoa da, beraz, irakaskuntza sortzailea egiten duen pertsonak horri buruzko zenbait printzipio kontuan hartzea:

1.- Irakaskuntza sortzaileak izaera malgua du. Aurkikuntzen bidez ikasten da, eta ezaugarri nagusiak hauek dira: inprobisatzeko gaitasuna, aldaketarako gaitasuna eta ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera formazioa egokitzea.

2.- Zeharkako ikaskuntza metodoen arabera zehazten da. Motibazioak, simulazioak, kontsultak eta aurkikuntzak irakaskuntza metodo horien oinarria zehazten dute eta haien ezaugarri nagusiak naturaltasuna, autonomia eta ulermena dira.

3.- Irudimenezkoa da. Sormenaren trebetasunak erabiltzen direnean irakaskuntza prozesuaren alde lan egiten da.

4.- Materialak eta ideiak era berrian erabiltzea bultzatzen du. Materialak, ideiak edo metodoak hainbat eratarik konbinatzea.

5.- Harremani laguntzen die.

6.- Auto-norabidea indartzen du. Ikaslea da ikasteko ardura duena, eta irakaslea laguntzailea da. Giro horretan, jakin-mina, ikerketa, esperimentazioa... bultzatzen dira.

7.- Auto-balorazioa eskatzen du; irakasleak amaierarako uzten baitu bere epaia.

8.- Arriskuak ditu, baina sariak ere ematen ditu.

Irakaskuntza sormen prozesu bihurtzen da, norbanakoak baldintza hauek betetzen dituen:

- Irakaskuntza teknikak eta estrategiak hobetzeko beharra ikusten duenean.

Sormena duten pertsonak, arazoak beste era batera planteatzeko eta erantzun berriak emateko gaitasuna izaten dute. Edozein gairen inguruan duten oinarriko ezagutza errentagarri egiten dute eta modu azkarrean erabiltzen dute hain sortzaileak ez garen pertsonen aldean. Pertsona horiek nortasun berezia dute eta erronkei eusten diete, amore eman gabe. Arriskuak beren gain hartzen dituzte eta irakasleari “hau erraza da, eman zailagoa den zerbait!” modukoak esaten dizkiote.

- Arazoak konpontzeko aukerak aztertzen dituen.

- Arazoei irtenbidea aurkitzeko iraganeko esperientzia eta ezagupen eta ikuspegi berriak erabiltzen dituen.

- Zientifikoki garatutako irakaskuntza sortzailearen printzipioak erabiltzeko asmoa duenean.

- Hezkuntza bizipenetan ikasitakoa erabiltzen duenean.

Sormenaren garapenerako programa

Guk jarraitzen dugun sormena trebatzeko programak sormenaren printzipio nagusiak bultzatzeko jarduerak jasotzen ditu:

1.- Produktu edo egoera batek dituen zailtasunak edo gabeziak antzemateko sentsibilitatea. Horrek egoera epaitzen eta lortu nahi dituen helburuak zehazten laguntzen dio pertsonari.

Gurasoek eta irakasleek haurrak estimulatzen dituzte ikas ditzaizketen haiek jakin-mina izan dezaten, arriskuak har ditzaten, arrisku eta errorekin goza dezaten eta irudimena erabili dezaten. Estimulazio horrek giro lasaia eskatzen du eta giro hori lortzeko, ez litzateke sormena alde batera utzi behar, eskola curriculumak eskatzen dituen erantzunak emateko.

2.- Buruko jariootasuna. Pentsatzeko eta ideia asko aldi berean proposatzeko gaitasuna:

a) Hitzeko jariootasuna: hitzak eta esaldiak erraztasunez ekoizteko eta konbinatzeko gaitasuna.

b) Asoziazio jariootasuna: hitz jakin batentzat sinonimoak aurkitzeko erraztasuna.

c) Adierazpen jariootasuna: esaldiak eta edukiak egituratzeko gaitasuna.

d) Ideia jariootasuna: zenbait baldintza betetzen dituzten ideiak proposatzeko gaitasuna.

3.- Pentsamendu malgutasuna: eremu mentala zabaltzeko eta arazoak konpontzeko modu berriak aurkitzeko gaitasuna.

4.- Bat-bateko malgutasuna: ideia aniztasuna sortzeko gaitasuna, botila bat erabiltzeko moduak proposatzea, adibidez.

5.- Egokitze malgutasuna: arazo bati irtenbidea aurkitzeko, arazo horren baldintzak ulertzeko eta orokortzeko gaitasuna; marra kopuru jakina

erabilita karratuak egitea, adibidez; buroa zabalik izan behar dugu karratu guztiek neurri bera izan behar dutenaren ideia alde batera uzteko.

6.- Originaltasuna; ez ohiko ideiak ekoizteko gaitasuna.

7.- Urrutiko asoziazioak: itxuraz elkarren artean antzekotasun handirik ez duten elementuen artean harremanak eraikitzea.

8.- Arazoak berriz definitu: informazioa modu berritzailean interpretatzeko gaitasuna, pentsamenduak aurretik ezarritako formak alde batera utzita. Esate baterako, nola jar daitezke erarik egokienean ondoko objektuak lepoko bat egiteko: arkatza, errefaua, zapata, arraina edo krabelina.

9.- Lanketa: lan bati ideia asko eta askotarikoak eransteko gaitasuna; esaterako, bi lerro emanik, objektu zailagoa egiteko marrazkiak edo zehaztasunak eranstea.

10.- Anbiguotasunarekiko tolerantzia: ziurrak ez diren ondorioak onartzeko gaitasuna, kategoria zurrunik erabili gabe.

11.- Pentsamendu bateratuekiko interesa: erantzun egokiari buruz pentsatzeko gaitasuna, matematiketan eskatzen den moduan.

12.- Urruneko pentsamenduekiko interesa: arazo batzuek erantzun zuzen bakarra ez dutela ulertzeko gaitasuna.

Jarraitu beharrezkoa printzipioak

Programa osatzen duten jarduerak guztiek eskaintzen diete haurrei libreki adierazteko aukera, baina irakasleak irakaskuntza konstruktiborako bitartekari moduan aritu behar du. Hori dela eta, jarduerak printzipio hauei jarraituz egin behar dira:

1.- Jarduerak era interesgarrian eta erronka moduan azaldu. Lana gogor egin behar da baina sormenaren alderdi ludikoa alde batera utzi gabe. Irakasleak haurrei esan behar die ez duela balio "Nik ezin dut" edo "Ez naiz hori egiteko gai" modukoak esatea.

2.- Jarduerak ikaskuntza adierazgarriaren printzipioen arabera diseinatu. Horrek bi baldintza eskatzen ditu: hau-

rren garapen mailara eta haien interesetara egokitzea alde batetik, eta bestetik, errazentetik zailenera joatea, ordena logikoa mantenduz.

3.- Ikasitakoak eskolako beste egoera batzuetan eta haurren bizitzan zer eragin duen ikustea. Programaren jarduerekin lortzen dituzten estrategia eta taktikek curriculumeko beste arloetan eta eguneroko bizitzan aplikatzea garrantzitsua da.

4.- Edozein ideiak tokia izango duen testuinguru malgua eraikitzea.

Ondorioak

Sormena 50. hamarkada arte landu ez den gaia da eta sakontasunez landu behar dugu. Ikuspegiaren arabera, ezberdina izango da lantzeko era, baina sormena bultzatzea garrantzitsua da, bai familian, bai eskolan. Zenbait ikerketek utzitako datuen arabera, eskolaurreko garaian egindako sormen lanek nerabezeroan ikasleek duten sormenean eragina dute.

Sormena hasieratik landu beharreko hezkuntza helburua izan behar duela esan dezakegu. Horretarako, egun, baditugu programak, strategiak eta taktikak. Ikaskuntzaren lehen mailetatik sormenaren garapena bultzatzea garrantzitsua da arrazoi hauengatik:

- Ikasleei era dibergentean pentsatzen eta jokatzen erakusten diegulako.

- Ikasleak imajinazioa erabiltzera animatzen ditugulako.

- Intuizioa areagotzen duelako.

- Kuriositatea pizten duelako.

- Arazoak ez ohikoak diren prozedurak erabiliz konpontzeko gaitasuna hobetzen duelako.

Irakasleak bitartekari moduan duen papera oso garrantzitsua da; elkarrekintza erabiltzen saiatu behar da haurrengan sormena bultzatzeko.

Finean, sormenak testuinguru jakin bat eskatzen du, eta ideiak elkartrukatzeko, behar den moduan antolatutako jarduerak eskatzen ditu. Horrek esan nahi du, ikasgela, giza baliabide eta baliabide material guztiak errentagarri bihurtzeko gunea izan behar duela.

Hainbat adibide

Sormenaren dimentsioak garatzeko adibideak emango ditugu. Haurrek oso gustuko dituzte halako jarduerak, jarduera dibertigarriak dira eta curriculumarekin lotura zuzenik ez duten arren, curriculumeko zenbait alderdi lantzeko aukera ematen dute. Izan ere, haurrekin zenbait ariketa egin daitezke gelan, eta askotariko teknikak landu ditzakegu.

IDEIAALDAKETA

Idea: iratzargailu hobea. Galdera egin genien: Iratzargailu hobea lortzeko zer egingo zenuke?

Aldaketa batzuk proposatuta, horrelako iratzargailuak nahi lituzkete:

Handitu: Herri guztiarentzako iratzargailua.

Gutxitu: Zure belarrian sartzen den iratzargailua eta ondokoak esnatzen ez dituen.

Aldatu: Aurpegira ur hotza botatzen duen iratzargailua.

Ordezkatu: Ahora kafea botatzen duen iratzargailua.

Erabilera berria: Egunero hitz berri bat erakusten dizun iratzargailua.

Konbinatu: Esmatzen zaituen, kafea eta tea egiten dizkizun eta egunkaria ematen dizun iratzargailua.

Berrantolatu: Lo hartu aurretik hartzen duzun kafea eman eta hurrengo goizean esnatzen zaituen iratzargailua.

Ezabatu: Bakarrik jotzen ez duen iratzargailua. Ohetik jaiki eta botoia sakatzen duzunean jotzen du.


BIRZIKLATU

Esan, nola erabiliko zenituzke gauza hauek zerbait berria egiteko?

Hasierako materiala:



Emaitza:



Nola balia ditzakegu irakasleok geure emozioak, ikasgelan ikasleen garapen emozionala bultzatzeko



Gustatu edo ez, uneoro ari gara emozioak bizitzen eta horiei esker triste, alai, kezkatu, lotsatu... era askotara senti gaitezke ("menua" ikaragarri zabal da!). Emozioak, gertaera jakin batzuek barnean eragiten dizkiguten bulkadak dira. Bulkada horiek era batera edo bestera jokatzea bultzatzen gaituzte eta horretan datza hain zuzen ere emozioen garrantziak: askotariko egoeratarako egokitzeko informazioa erraztu eta horren arabera jokatzea ahalbidetzen digute. Askotan, emozioak eta sentipenak, "positiboetan" eta "negatiboetan" sailkatzeko tentaldia izaten dugu, baina... Zuzena al da halakorik egitea? Ba al daude emozio positiboak eta negatiboak? Lehen aipatutakoaren arabera ez du ematen hala denik. Emozio bakoitzak funtzio jakina betetzen du eta atseginagoak edo mingarriagoak izanik ere, guztiak behar-beharrezkoak ditugu bizirauteko. Guztiak laguntzen digute egoera berrietara moldatzen.

Abiapuntu hori aintzat harturik, emozioen aurrean bimotojarajokaz dezakegu. Batetik, bizitzen ditugunean, emozioei heldu, ulertu eta horien arabera joka dezakegu. Bigarren aukera, emozioa ukatzea eta berau biziko ez



Fontso CANTERA

JENDARTE HEZITZAILEA

URTXINTXA ESKOLAKO

GENERO TALDEAREN IZENEAN

bagenu bezala aritzea da, bizipenari inolako garrantzia eman barik. Bistakoa da lehenengo aukera dela bietatik osasungarriena eta pertsona moduan hazten lagun gaitzakeen bakarra. Izan ere, gure emozioak eta ingurukoak ulertzeak, horiei erreparatzea eta horietan sakontzeak, gure jarrerak malgutzen eta harreman afektibo eraikitzaileagoak izaten lagunduko digu. Izan ere, emozioek hainbat egoeraren inguruko informazio erabilgarria ezagutarazten digute eta horrek, erreflexuen arabera

jokatu beharrean, lasai pentsatuz, gure jokaeraren aurrean kontrol maila handiagoa izaten laguntzen digu.

Hortaz, gure haur eta gaztetxoaren hazkuntza emozional egokia bermatu nahi badugu esparru afektiboari tartea egingo dion hezkuntza eredu funtsezkoa izango dela ondoriozta dezakegu. Bistakoa da orain gutxi hasi garela emozioei duten garrantzia aitortzen. Sarritan, ikasleen emozioen aurrean era oldarkorren jokatu izan dugu, izututa, egoerak gaindituta bezala, emozioa apaldu, ezabatu edota ukatu nahian. Pentsa dezagun triste dagoen ikaslearegan: *"Unax triste dago. Hortaz, harengana gerturatuko naiz eta argudio baikorrak eskainiz, kontakizun polit bat azalduz, pasadizo barregarri bat gogoratuz, alaitzen ahaleginduko naiz..."*. Jarrera horiek eskolan ere isla zuzena dute, eta horrek hauraren edota gaztetxoaren garapen emozionalari onura baino, kaltea besterik ez dio eragiten. Horrek ez dio ikasleari emozioak naturalki bizitzen uzten, onartzen eta behar bezala adierazten laguntzen. Lor dezakegun efektua oso bestelakoa da, ikasleari igortzen diogun mezua hau dela kontuan hartuta: "Unax, ez itzazu gainerakoen aurrean emozioak adiera-

zi, ingurukoak urduritu egiten dituzulako. Hobe zenuke mementoko sentipenak zuretzako gordetzea edota ukatzea, ezer gertatu ez balitz bezala...". Egokiagoa izan daiteke haurari emoziora heltzen laguntzea, nola sentitzen den aztertzen laguntzea, jokatzeko aukerak lasaitasunez hausnartzen irakastea... Beti ere mementoan sentitzen duena errespetatuz eta saihestu barik.

Emozioak eta genero aldagaia

Oso ohikoa izaten da, emozio adierazpenak behar bezala jaso beharko litzukeen pertsonak (gurasoa, irakaslea...), hauraren sexuaren arabera erantzuna ematea. Gauzak horrela, badira ikasleei, neska edo mutila izateagatik, baimendu edota ukatu ohi zaizkien emozioak. Esaterako, neskek emozioak adieraz ditzakete (beti ere modu kontrolatuan), estereotipoen arabera emozioen gaia emakumearen esparru naturala dela ulertzen delako (izaki pasionala). Mutilei, ordea, ahuldadearekin lotzen diren emozioen bizi-pena ukatu egiten zaie. Estereotipoaren arabera, gizona izaki arrazionala zatekeen. Horrela, mutilei, jokabide erasokorrekin oso lotuak dauden amorrua eta haserrea naturaltasunez bizitzera baimentzen zaien bitartean, neskei errua edota beldurra bezalako emozioak onartzen zaizkie. Generoaren arabera emozio banaketa anti-natural eta bortxatu horrek hauraren garapenean izugarriko eragina izan dezake. Izan ere, emozioen "mutillazioa" eragiteaz gain, neskek zein mutilak, era batera edo bestera ekitera behartzen ditu, norberaren beharrak eta garapen pertsonala zeharo baztertuz. Beraz, esan genezake, gure ikasgeletan jarduera hezkidetzaila integratzeak, besteak beste, heziketa emozionala gogoan izatea eskatuko digula.

Irakasleon jarrera lagungarri

Ikasleekin sentimenduei buruz hitz egiteak eta horietan sakontzeak, ikasgelan konfiantza eta lasaitasun giroa sustatzeaz gain, haurrei hausnartzen eta sentimenduen gainean kontrola

izaten laguntzen die. Gauzak horrela, ez da zaila irakasleok ikasleen garapen afektiboan funtzio erabakigarria betetzen dugula ondorioztatzea. Lehenik eta behin esan behar da emozioekin egin beharreko lanketak eskolako jarduera osoa zipriztindu beharko lukeela. Ez litzateke batere eraginkorra izango emozioen gaia ikasgai moduan jorratu daitekeen esparrua dela pentsatzea. Ezin gara egun batean ikasgelara iritsi eta besterik gabe emozioei buruz hitz egiten hasiko garela azaldu. Gure barneko sentipenak askatzeko beharrezkoa den konfiantza giroa lortu nahi badugu, lanketak progresiboa izan behar du. Ezin ditugu emozioak ohiko edukien modura jorratu, emozioak uneoro bizi ditugulako eta partzelatu ezin daitekeen esparrua delako. Edozein unetan suerta daitezkeen emozioak jasotzeko eta era egokian adierazten trebatzeko gai izan beharko genuke. Eta, esan beharrik ez dago garapen emozionalaren lanketa egokiak eskolatik kanpo ere jarraipena izan beharko lukeela. Eskolan egiten dena ikasleen gurasoek eta arduradunek ezagutu beharko lukete eta eskolatik kanpo lana horrekin jarraitzeko ahalegina eskatu beharko genieke, horretarako beharrezkoa den informazioa eta trebakuntza eskainiz, guraso eskolen bitartez, adibidez.

Nondik hasi...?

Makina bat estrategia eta metodologia erabil daitezke, eta bilatzen hasita, ez dira gutxi horien inguruan topa ditzakegun baliabide pedagogikoak. Irakasleak haurrei edo gazteei emozioak egoki bizitzen laguntzeko jarrera aktiboa izateko erabakia harturik, hiru zeregin nagusiren inguruan lan egiten hastea bururatzen zait niri. Hiru bide, eta hirurak batera garatu beharrekoak gainera:

1.- Lehen esan bezala, ikasgelan konfiantza esparrua landu beharra dago. Norberak (irakasleak barne) bere emozioak, iritziak eta hausnarketak eroso adierazteko espazioa eguneroko landu beharko dugu ikasleekin batera.

Bistakoa da orain gutxi hasi garela emozioei duten

garrantzia aitortzen.

Sarritan, ikasleen

emozioen aurrean era oldarkorrean jokatu izan dugu, izututa, egoerak gaitortuta bezala, emozioa apaldu, ezabatu edota ukatu nahian.



2.- Irakasleak ere bere emozio gaitasunak trebatu beharko ditu. Gu ere, eragiten ari garen bitartean, ikasten eta gure garapen emozionala bultzatzen ari gara. Emozioei bulkada bidez erantzutea ekiditeko eta gure ekimenen gainean kontrol handiagoa izateko, metodologia baten gainean trebatu beharko ginateke. Lehenik, lasaitzen ahalegin du gaitzen. Jarraian, bizitzen ari garen egoera ulertzen saiatu, eta memento horretan nola sentitzen garen zehaztu beharko dugu. Bukatzeko, jarduteko erarik egokiena pentsatu, eta koherentziaz jokatzeko dagokigu.

3.- Egunerokotasunean, zeharka bada ere, emozioen inguruko lanketa burutzeko moduak bila ditzakegu: ikasleei memento jakinetan nola sentitzen diren galdetuz, sentimenduei izena jartzen lagunduz, gurekin hitz egiten ari direnean arretaz entzunez, haien sentipenak onartuz, noizbehinka gure sentipenak ere adieraziz, txantaia emozionala alboratuz, emozionalki gaitortuta ditzakeen egoeraren bat aurreikusitako dezaguneari norberaren kontrolerako laguntza eskainiz (metodologia birgoratu), emozioak adierazterakoan heldutasuna erakusten dutenean gorpuzpena adieraziz, maiz maitasuna ozenki adieraziz... Jarduera horiek



Ez litzateke batere eraginkorra izango emozioen gaia ikasgai moduan jorratu daitekeen esparrua dela pentsatzea. Ezin gara egun batean ikasgelara iritsi eta besterik gabe emozioei buruz hitz egiten hasi.

guztiak ikasleak gaitasun emozionalean trebatzeko lagungarriak izan daitezke. Bistan denez, ez da beharrezkoa emozioen inguruko lan saio bereziak antolatzea ikasgelan sentipenen lanke-tari heltzeko. Egunerokotasunean berez sortzen diren egoerak eta guk geuk bila ditzakegunak baliagarriak izan daitezke lanketa iraunkorra burutzeko eta emozioei buruz hitz egitea ohitura bilakatzeko.

Sakontzeko moduak

...Eta behin bidea egiten hasita, beti ere ikasleen erritmoak errespetatuz, trebakuntzan urrats berriak eman ditzakegu. Anitzak dira hurrekin batera jorra ditzakegun estrategiak. Adierazpen emozionalaren garapenerako izan dezaketen erabilgarritasunagatik, hauek azpimarratzea egokia iruditzen zait:

a) EMOZIOEI IZENA JARRI: Askotan zerbait sentitzen dugula sumatu bai, baina sentipena definitzen ez dugu asmatzen. Gure sentipenei izena jar-tzea izango da lehengo eta oinarritzko zeregina. Ezjakintasun egoeran gauden bakoitzean, tartetxo bat hartzea eta hausnartzeari ekitea izan daiteke hoberena. Nola sentitzen naiz? Zein izen jar dakioke sentitzen dudanari?... Zentzu horretan, sentipen bakoitza, gure gor-

putzean eragiten duen erantzunarekin lotzea (gorritasuna, izerdia, kitzikape-na, oka egiteko gogoa...) oso lagungarria izan daiteke.

b) PENTSAMENDUA HEZI: Emozio jakinei erantzun "hausnartuak" emateko eta aldi berean erantzun ol-darkorrek ekiditeko, norberaren pentsamenduak heztea bide eraginkorra izan daiteke. Askotan kontziente izan barik ere, norberak bere buruarekin hitz egiten du. Barnean sortzen zaigun ahots leun baten modura azaltzen zaizkigun pentsamenduak dira horiek. Barne burutapenek, gertatzen zaizkigun egoeren gaineko irakurketak burutzen laguntzen digute eta horien aurrean erantzuna ematera bultzatzen gaituzte. Norberak pentsamendu horiek kontrolatuz gero, burutapen negatiboak, positibo bilaka ditzake. Pentsamendu horien bitartez, egoerak gainezka egin, edota egoera kontrolatuz erantzun egokiagoa emango dugu. Egoerak lasaitasunez kudeatzeko metodologia ikasita, helburua, norberak bere barne pentsamendua heztea izango litzateke.

c) ERLAXAZIO ARIKETAK: Lasai egoten jakiteak, egoera zail batek eragin diezaguken tentsioa gaintzen lagun gaitzake. Une bakoitza hausnartu eta ulertzeko beharrezkoa den lasaitasuna erlaxazio ariketen bitartez eskura dezakegu. Horretarako gure ikasleekin hainbat teknika jorratzea izan daiteke bidea. Lasaitzeko zenbait aukera ezagutzuz, norberak eraginkorrena aukeratu du: kolore hotz bat pentsatu, oroitzapenen bat gogora ekarri, musika la-saia entzun...

d) ENPATIA LANDU: Norberaren sentipenak eta emozioak aztertu eta onartu, eta era berean, besteenak onartu.

e) AGRESIBITATEAREN ALTERNATIBAK: Ikasleei, ariketen bidez erakutsiko dizkiegu jarrera bortitzak alboratzen lagunduko dieten gakoak ("Rol jolasen" teknika oso erabilgarria izan daiteke kasu horretan); gatazkaren gunitik aldendu eta pentsatu, erlaxatu, nork bere buruari pentsamenduaren

bitartez irizpideak eskaini, jarrera empatikoak bultzatu...

Emozioen Memory-a

Emozioak garatzeko, eta aldi berean jarrera bortitzak alboratzeko eta hurreman pertsonal emankorrek garatzeko makina bat ariketa, teknika eta baliabide topatuko duzu. Eguneroko jardunean esperientzia apalak garatuz, egokitzapenak eginez, hobekuntzak gauzatzuz, etengabe hausnartuz... Eragiteko modu egokia borobildu eta baliabideen zerrenda osatuz joan gaitzake. Alde horretatik, Bizkaiko Urtxintxa Eskolak ekarpen xumea egin nahi izan du hezkuntza emozionala bultzatzeko oso aproposa den "Emozioen MEMORY-a" euskarri pedagogikoa kale-ratuz. Memoria garatzeko bikote jolas ospetsuan oinarritutako jokoa da. Aipatutako tresna, haur eta gaztetxo-en garapen emozionala era dibertigarrian garatzen laguntzeko diseinatu dugu. Horren bitartez hamar emozio mota ezagutuko dituzte eta emozio adierazpenean garrantzitsuak diren prozesuetan (emozioen identifikazioa, emozioen kanpo seinaleak, hausnarketa, "emozioa" eta "jokabidea"-ren arteko aldea...) trebatuko dira jolasean ari diren bitartean.

Bultzatzen ditugun hezkuntza prozesuetan emozioak aintzat hartzeak pertsonalki haztea eta sexismoa alboratzea erraztuko dute... Hori duk/n mauka!! Inoiz pentsatu al duzu egunean zehar zenbat gauza sentitzen dugun? Lotsa, plazerra, poza, interesa, beldurra... Benetan merezi du ikasleekin batera emozioen mundu zoragarrian murgiltzea! •

Zenbait baliabide erabilgarri:

<http://www.pentacidad.com/index.htm>

http://www.euskadi.net/r33-2288/en/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/AFECTO_EUSK.pdf

CARPENA Anna (2003), "Educación socioemocional en la etapa de primaria": Materiales prácticos para la reflexión. Barcelona: EUMO-OCTAEDRO

Seminario Galego de Educación para a Paz (2006), "Educación emocional y violencia contra la mujer": Estrategias para el aula. Madrid: LA CATARATA

Emaisia Elkarte (2007), "XAKE MATE!": Aisialdian emozioen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta. Bilbo: Emaisia Elkarte

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

martxoa

berriak

Elebitasunetik eleaniztasunera

Euskarazko irakaskuntza erronka berrien aurrean



Otsailaren 20an Iruñeko NUPen burutu zen jardunaldiak ikusmin handia sortu zuen. Unibertsitateko aretoa gainezka zegoen. Esparru anitzeko adituek hainbat aurkezpen egin zituzten. Egun horretako laburpena doa hemen.

Jardunaldiaren zergatia

Euskarazko irakaskuntzak urte dezente daramatza bere ibilbidea egiten eta Nafarroan D ereduak, zailtasun aunitzekin topatu arren, aurrera egin du. Euskararen Legeak nafartar askori euskara ezagutzea ukatu dio ibilbide horretan, eta egun ukatzen jarraitzen dio. Baina aukera dagoen tokian, urtetik urtera, gurasoek egiten duten eskaera administrazioaren aurretik doa.

Bestalde, azken urteetan aldaketa sakonak eman dira jendarte osoan eta nola ez, eskola munduan ere. Hizkuntza ereduaren eztabaida bizia da. EAEn Hezkuntza Saila eredu bakarra sortzeko lanean ari

da eta Nafarroan, Hezkuntza Departamentua, ingelesa indartzeko hainbat ereduaren saiakeretan: lehenengo I eta J ereduak, gero British eta azkena aurten proposatutako eredu berria... %40a ingelesez, %40a gaztelaniaz eta beste %20 aukerako 3. hizkuntza batean.

Argi dago, Euskal Hezkuntzako partaideak, eta jendarte oro har, erronka handi baten aurrean aurkitzen garela. Europar Batasuneko herrialdeen arteko mugak gero eta lausoagoak dira eta, euskal haurrak eta gazteak abiada bizian aldatzen ari den jendartean bizitzeko prestatu beharrean dira. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak, jendarte eleanitz eta kulturantz horretan, hizkuntzak ikasteko irizpideak eta orientabideak finkatu ditu. Orain, euskaldunoi dagokigu jendarte eleanitz horretan geure lekua hartzea. Euskaldunok euskaldun gisa bizi-raungo badugu, euskaldun eleanitz gisa izango da, dudarik gabe.

Jardunaldi hauetan bi ikuspegi

azpimarratu dira: diskurtso berri-tzearen garrantzia eta euskararen hezkuntza indartzea. Ilusioz ekin diezaiozun, bada, eta zipritin dezagun ilusio horretaz gure ikastetxetako guraso, langile, ikasle eta ondorioz, euskal jendarte. Denok, eskola eta jendartea elkarlanean, momentuaren garrantziaz jakitun, erronkari ahalik eta hobekien erantzun behar diogu.

Xabier Azanzaren adierazpena

Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren izenean Xabier Azanza ENAIko zuzendariak eman zion sarrera jardunaldiari, hau esanez: "Nafarroaren erkidegoak ondaretzat hizkuntza bat baino gehiago du eta altxor hori gordezteko eta altxorraren galera eragozteko sortu da ENAI Euskararen Nafar Institutoa, modu positibo eta integratzaile batez euskara berreskuratzeko eta garatzeko. ENAI prest gaude guztiekin elkarlanean aritzeko Nafarroako euskara eta jendarte elkarbizitzaren alde jartzeko. Mila esker."

Hizlariak egindako aurkezpenen laburpenak

Europako hizkuntzen erreferentzia markoari buruz Paul BILBAOK:

- Erreferentzia europarrak hiritar eleanitzak ditu helburu (3 hizkuntza ezagutzea gutxienez).
- Hizkuntzen ezagutza neurtzeko 6 maila ezarri dira: A1, A2, B1 (atzerriko hizkuntza), B2 (16 urte-ekin euskara eta gaztelaniaren ezagutza mailako irizpidea EA Eren kasuan), C1 (EGA) eta C2.
- Eleaniztasunaren aplikazioa Nafarroan martxan jartzeko, bi galdera egin zituen:
 - Zein hizkuntza irakatsi behar da?
 - Zein hizkuntza gaitasuna?

Nafarroako euskararen legeari buruz Rolan JIMENOK:

- 1982ko Lege Organikoak Nafarroa osorako gaztelania izendatu zuen hizkuntza ofiziala. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen zuen eskualde euskaldunetan.
- 1986 Foru Legeak hiru hizkuntza eremutan banatzen du Nafarroa (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna).
- Euskararen legetik abiatuta, posibilismotik eta pragmatismotik zein urrats eman ditezkeen.

Haurren hizkuntza gaitasunari buruz Pablo SOTESek:

- Hizkuntzak ikasteko, edozein adinetan gaitasuna dugu.
- Elebitasunak errazten du hirugarren hizkuntzaren ikasketa.

Hizkuntzen proiektuari buruz Matilde SAINZek:

- Hizkuntza Proiektuaren marko orokorraren kokapena, Hizkuntza Proiektuaren helburuen zehazta-

pena eta Hizkuntza Proiektutik hizkuntzen curriculumerako urratsa.

Hizkuntzen arteko harremanei buruz Lurdes ETXEBERRIAk:

- Berak egindako ikerketa batean oinarrituta, hizkuntzen arteko transmisioa nola gertatzen den.
- Ondorioztatutako ildo pedagogikoak eta didaktikoak.

Lizarra ikastolako Hizkuntza proiektua eta Normalizazio planari buruz Maider ETXANIZ eta Josu REPARAZek:

- 1970etik hona Lizarrako ikastolak egin duen ibilbidea, duela urte gutxi egindako hizkuntza diagnostikoa, haren ondoren hartutako neurriak eta arlo kurrikularra eta ez-kurrikularra nola lotzen dituzten hizkuntza proiektu berean.

Ebaluazioaren garrantziari buruz Arantxa URBEK:

- Orain arte hizkuntzak gutxi neurtu dira modu orokor, sistematiko eta zientifikoan. Hori egitea ezinbestekoa da prozesuak hobetzeko.
- Euskararen Kontseiluak prestatu berri duen proposamenaren ebaluazioari buruz jasotakoa.

Hizkuntzen ikaskuntza psikologia eta soziologiaren ikuspegiari buruz Maria-Jose AZURMENDIK:

- Ikuspegi psikologikotik haurrek edozein hizkuntza kopuru ikas dezakete.
- Arazoa sortzen da haurrak inguru soziologikoa aldekoa ez duenean.
- Erabakiorra da 0-3 urteko adin tartea, asko erraz bailezake.



Ikasys

Berrikuntza eta edukiak uztartzen dituen proiektua

Ikasys, Ikastolen elkartearen lantzen ari den proiektu berritzailea da eta bere helburua, etorkizunean ikastolako ikasleen trebakuntza sistema hobetzea da. Ikasle bakoitzaren erritmo eta beharrei hobeto erantzuteko, tresna eta aplikazio informatikoak eta edukiak uztartzen dituen egitasmoa sortu dute, eta Aste Santutik aurrera Gipuzkoako hiru ikastoletan egingo dituzte lehen esperientziak.

Ikasle bakoitzak, ikasterako orduan bere estiloa eta erritmoa ditu, bere erraztasunak eta zailtasunak. Batzuek erraztasun handiagoa dute gauzak memorizatzeke edota ariketak egiteko, eta moduak ere anitzak dira. Ikasys proiektuarekin, ikasle bakoitzak ordenagailu bat izango du eta hortaz, bakoitzak norberari egokitutako hainbat ariketa egin ahal izango ditu.

Proiektua azaltzeko aurkezpena Iruñean egin zuten, Ikastolen konfederazioko Koldo Tellitu lehendakariak, Nafarroako Ikastolen elkarte Pello Irujo lehendakariak, Josune Gereka zuzendari teknikoak, Iñaki Lekuona zuzendari teknikoak eta Oihan Odriozola proiektuaren arduradunak. Bertan azaldu zituzten 2000. urtetik lantzen ari diren egitasmoaren nondik norakoak.

Ikasle bakoitzak ordenagailua izango du; txikia, mahaian lekua izateko eta haurrek eramateko modukoa, eramangarria, Wifi sistemaduna eta sendoa. Helburua ez da irakaslea ordezte, tresna lagungarria izatea baizik, eta koarderno baten gisa erabiliko dute. Ikastolen elkarteak kideek adierazi dutenez, prezio apalekoak dira eramangarriak.

Ordenagailuko jardueren bidez "kompetentzien garapenera bideratu-

tako hezkuntza apendizai puntualen sistematizazioa" lortu nahi dute eta ariketak bost alorretan banatuko dituzte, "euskarara, gaztelania, ingelese, matematika eta ingurumena". Ikasle bakoitzaren eramangarrian, 45.000 ariketa daude, arloka eta zailtasunaren arabera mailakatuak. Irakasleak, bere ordenagailutik ikasleen jarraipena egiteko aukera izango du, baita bertatik jarduerak sortzeko eta antolatzeko aukera ere.



Iparrorratza, orientazio zerbitzu akademikoa on-line

Unibertsitatea.net atariak, besteak beste unibertsitatera joan behar diren gazteen kezak bideratzeko orientazio zerbitzu akademikoa jarri du martxan bere web atarian. Ataria 2006ko azaroan jaio zen euskarazko komunitate unibertsitarioari hainbat zerbitzu eskaintzeko: ikasketa bilatzailea, apunteak partekatzeko gunea, albistegia... eta orain aholkularitza akademikoa pertsonalizatua emateko zerbitzua sortu dute hala eskatzen dutenei laguntzeko. Hala, zerbitzu praktikoa izan daiteke ikasketak aukeratzen ari diren gaztetxoek kezak plazaratzeko eta argitzeko.



Ikas.kom, ikas komunitateen kongresua

Makina bat hezitzaile, hezkuntzako langile, ikasle eta aditu gerturatu zen otsailaren 18an eta 19an Bilboko Euskalduna Jauregia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako ikas komunitateei buruzko jardunaldietara. Jardunaldien xedea, Ikas Komunitateen Programa eta horren Hedapen Plana ezagutaraztea izan zen besteak beste, eta bere leloa, "Hezkuntzaren emaitza, guztion elkarlana" izan zen.

Bi egunetan, 1.200 lagun izan ziren bertara hurbildutakoak. Lehen egunean, Tontxu Campos Sailburuaren aurkezpen ofizialaren ostean, Michael Apple entsutetsuak eman zion hasiera kongresuari, eskola demokratikoen inguruan eta komunitatearen garrantziaz

mintzatuz. Ostean, ikas komunitateetako hainbat partaide (ikasleak, gurasoak, irakasleak, gizarte hezitzaileak, aholkulariak eta zuzendariak) proiektuaren inguruan aritu ziren. Arratsaldean Helsinkiko Unibertsitateko Mikko Ojala eta Harvardeko unibertsitateko John Commings adituak izan ziren entzungai. Lehenak, Suomiko Hezkuntza Sistemaren inklusioak betetzen duen pateriazuen hizpide, bigarrena, ostera, familiaren prestakuntzaz eta partehartzeaz aritu zen.

Astearte goizean, hainbat hitzaldi, esperientzia eta tailer izan ziren auekan. Arratsaldean, Ramon Flecha ikasketak dialogikoen inguruan mintzatu zen. Jardunaldiei hasiera zien emanmoduan, Apple-ek berak eman zien



bukaera ere. "Eskola demokratikoak" liburua irakurria behar zuen eztabaida-ko partehartzaile orok, eta talde txikitara ideia anitz agertu ziren. Adituak, noizbehinka bere iritzia eman zuen eta denen artean hainbat ondorio jaso ziren, prozesu partehartzailea egiteko asmoz.

Kristau eskolen "orainaldia eta etorkizuna"

"Orainaldia eta Etorkizuna" lemapean kongresua egin zuen Kristau Eskolak Bilboko Euskalduna Jauregian otsailaren 14an eta 15ean.

Kristau Eskola 2005. urtean gizarteratu zen erakunde moduan eta hiru urteotan antolakuntza indartzen aritu ondoren, hausnarketa egin nahi izan dute. Azken 30 urtetan gizarte mailan eta hezkuntza mailan izan diren aldaketak aztertutuzte. Horiek guztiak kontuan izanik, kongresuaren helburua galdera honi erantzutea zen: zer da gaur egun Kristau Eskolak gizarteari eskaintzen diona eta, zer da eskaini beharko liokeena?

Kristau Eskolen helburua beren proiektua, hezkuntza komunitateekin

eta hainbat agente eta erakunderekin partekatzea da. Baina horreterako, proiektua definitu nahi dute, izan ere, gizarte etengabe aldatzen ari denez, proiektua unean uneko egoerara egokitu behar dute.

Bi egunetan hori guztia zehazten saiatu ziren Bilbon bildu ziren pertsonen eta kongresuak utzitako proposamenak ez dituzte itxi oraindik. Urrirabartean hezkuntzako zenbait eragileren ekarpenak bilduko dituzte, kongresuak utzitako emaitza aberasteko helburuz. Ahalik eta ekarpen gehien jasotzea da Kristau Eskolako arduradunen helburua, horrek euren proiektua osatzen lagunduko baitie.



Hezkidetzaz gida

Hezkuntza parekidearen alde pausu bat gehiago

Euskal Herriko Bilgune Feministak "Hezkidetzaz gida" atera berri du, parekidetasunaren bidean lanean diharduten hezitzaileentzako tresna praktikoa. Bea Ugarte, Marije Apodaka eta Maider Gonzalez hezitzaileak izan dira liburuaren egile nagusiak.

Hezkuntza parekidearen alde egiteko, beste urrats bat eman nahi izan du bilguneak. "Ikasgaien ikuspegia erabat androzentrikoa da, emakumeok ikusizintasunean uzten gaituelarik. Bestalde, osagai sexistak presente daude bai ageriko eta bai ezkutuko curriculumetan (hizkuntzan, materialean, jarreretan, balioetan...)"

Horri ekinez, Bilgune Feministak, 2003an, Minimoen Taula atera zuen eta orduan hezkuntza eragile askorengana jo zuen hezkidetzaren aldeko konpromezu eske. Minimoen Taula ikastetxeek hezkuntza hezkidetzazilea bermatzeko beharrezko minimoak batzen dituen 10 puntuko taula da. "Orain, gida honekin, hezkuntza eragileekin beste urrats bat egin nahi dugu", diote egileek.

Gidak, unitate didaktiko bategitean hezkidetzaren ikuspuntutik kontuan izan beharrezko elementuak aztertzen ditu. Parekidetasunaren bidean tresna lagungarria, erabilerraza eta praktikoa izan nahi du gidak. Teoria eta praktika uztartu nahi izan dira eta Minimoen



Taula oinarritzen den 10 atalak jorratzen dira bertan: Balio eta kompetentziak, helburuak, edukiak, metodologia, ikastetxearen antolaketa, materiala, harremanak, hizkuntza, espazioa eta denbora eta ebaluazioa.

Atal bakoitzean, hiru zati desberdin daitezke. Hasieran, azalpen teorikoa egiten da galdera-erantzunen bitartez. Jarraian, lan egiteko adibide edo ariketa praktikoa gaineratzen dira eta amaitzeko, bitarteko posibleen zerrenda. -Ikasleen adinaren arabera eduki posibleen taula ere bada eta gidaren amaieran, glosategia aurki daiteke, liburuan zehar agertzen diren kontzeptuen definizioak errazteko.

Hezkuntza eragileekin lanketa egin nahi da gidarekin, eta besteak beste hezkuntza eragileei, ikastetxeei eta he-

zitzaileei pertsonalki aurkezteko asmoa agertu dute liburuaren egileek. Irakasle eskoletara ere jo nahi dute, prestatzen ari diren etorkizuneko irakasleak gaiarekin sentsibilizatzeko eta gida aurkezteko xedez.

Eskoletako irakasleek beren buruak aztertzea eta eguneroko jarduna kuestionatzea lortu nahi da gida honekin, eta jada hezkidetzarekin engaiatuta dauden irakasle eta zentroentzako laguntza praktikoa izatea.

Curriculumaren gaia bizi dagoen une hau, egokia iritzi zaie egileei gida plazaratzeko. "Memento aproposa da, zeren bestela horrelakoetan gertatu izan ohi da lehendabizi curriculum a egin, eta, gero, horren gainean hau dena, adabaki bezala sartzea".

Ikastaroak

*GIS libreen erabilera irakaskuntzan (Garatu 07-08)

Noiz: Martxoak 5-Apirilak 23, asteazkenetan 17:30etatik-20:00tara eta on-line. **Non?** Eibarko Markeskoa Jauretxean. **Maileak:** Borja Ruiz Huerta eta Aitziber Elgezabal Otsoa de Trintxetru.

*European Schools Project Association, 22. konferentzia: "Bridging Education into Society"

Noiz: Martxoak 5-9. **Non?** A Coruñan, Hotel Melia Maria Pita. **Informazio gehiago:**

<http://www.ejournal.fi:80/esp22/>

*Partaidetzari buruzko jardunaldiak

Noiz: Martxoak 5, 17:00-20:30, Martxoak 6, 17:30-20:30. **Non?** BOLUNTA-ko areto nagusian, Zabalbide, 4, Bilbo.

Antolatzailea: Adarra Pedagogi Erakundea. **Informazio gehiago:** www.adarra.org

*Psikomotrizitatea 0-2

Noiz: Martxoak 5-Apirilak 2, asteazkenetan eta ostegunetan, 17:00etatik-20:00tara. **Non?** Donostian. **Maileak:** Juanjo Kintela. **Informazio gehiago:** www.haureskolak.net

argitalpenak



Zaldun beltzak

Jesus Mari Olaizola, "Txiliku"
ELKAR

Maidar sarri haserretzen da Jokin Galtxagorriekin, baina haren beharra du. Nork kontatuko dio bestela zaldun beltzen kondaira? Kondaira horrek, entzun ahala, entzuteko gogo gehiago sortzen baitu. Meer-Mari printzesa da istorioaren protagonista ausarta. Eider Eibarrenak dira irudiak •



Oz-eko aztia


Jasone Turumbay
EREIN

Antzoki txikia bildumaren ale berria da Oz-eko aztia. Jasone Turumbay antzerki irakasleak idatzi du 10-12 urteko haurrei zuzendutako antzezlan eta guztia prestatzeko behar den materialaren zerrenda ere aurki daiteke liburuen hasieran. Conchi Maoñok egin ditu irudiak •



Euskara Planak: nondik gatoz,
non gaude eta nora goaz
ALBOAN ETA HEGOA

Hainbat enpresatan garatu ditu Euskara Planak Elhuyarrek eta Alboanen *Giza Eskubideak Derechos Humanos* argitalpen bilduman argitaratu duten lan honetan ELKARGIko esperientzia sistematizatu dute adibide moduan, gainerako planak alde batera utzi gabe •



Aitarekin arrantzan

Begoña Lasa Arbelaitz
EREIN

Aitarekin arrantzara joan eta arrainik ez, baina zirkoko pailazo baten zapata arrantzatu zuen protagonistak. Zirkoa herrira iritsi zen eta pailazoari bere zapata itzuli zion neskatoak. Irakasleak idazlana eskatu dionean, papera zuri zegoen oraindik... Begoña Lasa Arbelaitzek idatzi du testua eta irudiak Jon Zabaletak egin ditu •



Agur Xiberoa, 3. alea

Joseba Egiguren José Miguel Llano
EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN SAILA

Euskal Herriko natura ondarea eta ingurumen-aberastasuna ezagutarazteko asmoz argitaratu dute liburua eta biodibertsitatea babesteko jarrerak ere bultzatu nahi dituzte egileek. Baina, helburu nagusia, Gorobel mendilerroa ezagutztea da •



Ihitzak aldizkaria

25. alea
CEIDA

Ihitzak aldizkariaren 25. alea interes ekonomikoaren errealitatearen gaia aztertu du. Herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen errealitateak aztertu dituzte, ikasleei hori guztia ezagutarazteko helburuarekin. Garapen iraunkorraren alde lan egiteak duen garrantziaz ohartarazi nahi dituzte ikasleak •

... nora joango gara?

ALGORRI EZAGUTZA ETXEA Milioka urteko historia lurrean idatzita

Zumaiako flysch-a mundu osoan egin da ezagun, izan ere, altxor geologiko ikaragarria da. NASAK berak ere, Zumaian jarri ditu begiak bertako arroak ziklo klimatikoak aztertzeko gune ezinhobea direlako. Flysch-a liburu baten antzekoa da eta bertan ikusten diren geruzak, liburu horren orrialdeen parekoak izan litezke. Liburu horretan Euskal Herriko historia geologikoa irakur daiteke eta kapitulu garrantzitsuenak Zumaia inguruan kokatzen direla esan daiteke, Asier Hilario Algorri ezagutza etxeko zuzendari eta geologoak esan digunez. Horiek irakurrita, dinosauroak noiz eta nola desagertu ziren ikus dezakegu, besteak beste.

Algorri ezagutza etxearen ardura-dunen helburu nagusia, geologia guztiongana gerturatzea eta Euskal Herriko historia geologikoaren zati bat era-

kustea da, Asier Hilario, Algorri ezagutza etxeko zuzendariak esan digunez. Izan ere, paisaiak eta harriak estatikoa den zerbaiten moduan ikusten ditugun arren, hori ez da horrela. Eta hain zuzen hori erakutsi nahi diete Algorri gerturatzeko direnei. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi, eta unibertsitateko ikasleentzat ere jarduerak eskaintzen dituzte.

Flysch-a da Zumaian duten erakusgairik bereziena. Litekeena da flyschak euskal kostalde osoa hartzea, baina Debatik Getariaraino ez da orririk falta liburu horretan. Ia 50.000.000 urte gordetzen ditu; duela 100.000.000 urtetik 50.000.000 urtera arte gutxi gorabehera. Zati horren barruan kapitulu batzuk garrantzitsuak dira; duela 70.000.000 urtetik 50.000.000 urtera bitartean gauza bereziagoak gertatu baitziren; dinosauroak desagertu ziren, aldatuta klimatikoak izan ziren, Pirinioak altxa ziren... Eta urte horiek Zumaian daude idatzita. Bistaz, arroak antzekoak dira Donostian edota Zumaian, baina Zumaiako arroek duten

adinean gauza berezi asko gertatu zirela esan digu Asierrek, eta hori guztia ulertzeak gaur egungo erronka askoren gainean, bestelako ikuspuntua ematen duela.

“Arroek geruzak dituzte. Horiek, itsaso azpian eta horizontalean sortu ziren bere garaian, metaketa bidez, hauts geruzak bat mahai gainean sortzen den moduan”, esan digu Asierrek. “Duela 40.000.000 urte arte gutxi gorabehera, alde batetik Iberia irla zegoen eta bestetik, Europako kontinentea. Erdian itsaso zegoen baina denborarekin, Iberia iparralderantz mugitu zen eta Europa-ekin talka egin zuen; talka horretan, itsas azpian metatu ziren sedimentu horiek guztiak altxatu egin ziren eta horre-





la sortu ziren Pirinioak eta Euskal Herriko mendi guztiak, horregatik ikus daitezke Euskal Herriko edozein menditan fosil itsastarrak”, jarraitu du. Geruza bakoitza itsas hondo bat izan zen eta sedimentuak jaso zituen, hareak, buztina, eta animalien oskolak. “Itsasoko planktona oso sentibera da itsasoko aldaketan aurrean; segituan emigratzen du. Geruza bakoitzak itsasoan garai hartan zer zegoen esaten digu; eta horren arabera gauza asko jakin daitezke, tenperaturak aldatu ote ziren, konposizioak...”, jarraitu du Asierrek.

Geruzak egoteak aldaketa klimatikoekin zerikusia du Asierrek azaldu digunez, eta NASAk berak ere proiektua du Zumaiian. Ikusten diren geruzek glaziazioekin eta ziklo klimatikoekin zerikusia dute eta gai hori astronomikoki kontrolatua dago. Asierrek adierazi digunez, NASA, dituen eredu astronomikoek denboran atzera funtzionatzen ote duten aztertzen ari da.

Hemendik gutxira, aurten ziur aski, biotopo izendatuko dute Zumaiako gunea •



ALGORRI EZAGUTZA ETXEA

Juan Belmonte, 21
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 143 100
www.algorri.eu
algorri@zumaia.net



Oharrak:

- Zerbitzu guztiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzen dituzte.
- Prezioak jardueraren arabera dira.
- Gehienez, 50 pertsonako taldeak onartzen dituzte, eta txalupan irteerak egiteko, 25 pertsona gehienez.

Hezkuntza Zerbitzua

Unitate didaktikoak eta irteera gidatuak eskaintzen dituzte.

Unitate didaktikoak eta tailerrak

* Kostaldeko ekosistemak.

Lehen Hezkuntzakoekin duten helburua Euskal Herriko ekosistema eta paisaiak ezagutzea da, jabetu daitezen kostaldea anitza dela; hondartzak daudela, padurak, dunak, labarrak, harriak...

*LH (5. maila eta 6. maila), DBH

* Marearteko zabalgunea.

Ekosistema berezia dago: marea jaisten denean plataforma antzeko bat geratzen da eta animalia asko daude. Helburua, ekosistema horretan dauden baldintza berezietan jabetzea da eta bioaniztasuna neurtzea.

*LH (5. maila eta 6. maila), DBH

* Euskal Herriko geologia eta flysch-a.

Euskal Herriko historia geologikoaren puzzlea osatu behar dute Euskal Herriko harri eta fosil gehienekin. Helburua da, jabetzea, Euskal Herriko paisaia oso anitza dela, harriz egina dagoela eta harri horiek ez daudela kasualitatez; historia geologiko zehatz baten ondorioz baizik.

*Batxilergoa

Irteera gidatuak

* Zumaiako natura.

*LH (5. maila eta 6. maila), DBH.

* Zumaiako flysch-a.

*DBH, Batxilergoa.

* Itsaslabarra.

*DBH, Batxilergoa.

* Txalupan irteera.

*Denentzat.

atzeko atetik



Eider EIBAR

IRUDIGILEA

Ikastola garaiko oroitzapen asko dauzkat, eta onak; lagunak, irakasleak, frontoia, Oihanak eta Anderrek ekarritako ahateak, amamamamuaumea, "Kalabaza tripontzia", futbola jantoki ostean, diaboloa, kromoak, txapak, indabak kotoi artean, Pantxika, Santa Martako tren... eta gehiketak, kenketak, zintzaizkit, I am, jauntxoak, Marte eta beste zenbait gauza.

Bereziki gogoratzen dudana, garai hartan esku artean izandako testuliburuak eta ipuinetako irudiak dira. Elurretan ibiltzean, baserriko leiho alboan hotzak akabatzen azaltzen zen txanxangorria gogoratzen dut, alboan "negu gorria" testua zuela. Edo Igaraba ezagutarazi zidan liburu urdin txikia. Begi bizidun bi sagarrak, sudur luzedun platanoarekin elkartuz eta hiru zenbakia idaztera animatuz. Beldurra

Oroimena iruditan

hezurretaraino sartzen zidan (eta didan, ziurrenik) sorgin gaiztoaren esku morea emakume ilehoriaren buruan orratza sartzen. Euliz betetako ardi beltz bakartiak hodei ilunez inguratuta sortzen zidan tristezia. Greziako jainko-jainkosak beldurgarri eta eder, historiako liburuan. Nikolas txikirekin testua bukatu, eta hurrengo marrazkia noiz agertuko zain. Banpiro txikiarekin, beldurra eta zirrara neurri berean sentituz. Iholdi ezagutzea. Fernando

Amezketarra eta Pottokorekin botatako barreak...

Asko dira.

Gerora, institutuan, marrazkien oroitzapen falta sumatzen dut. Agian horregatik betetzen genituen guk zirriborrozikasliburuak, alaitzeko eta asperaldia gainditzeko.

Horretan ari gara orain ere, asperaldia gainditzearren baino, oraingo marrazkiak geroko era guztietako oroitzapen bihur daitezzen.



Arabian, Bizkaietan eta Gipuzkoan 12-16 urte bitarteko gaztetxoek %36,5ek telebista du euren logelan, eta ez dute telebista ikusteko inongo mugarik. Hala, %60k 22:00etatik aurrera ikusten du telebista.


Iturria: Berria

hik hasi

20.
monografikoa

Konstruktibismoa eta hezkuntza

Mario Carretero



Mario Carretero irakasleak Piaget, Vigotski eta Ausubelen teoria eta praktikak aztertu ditu eta modu oso ulerkorrean aurkeztu. Lana eguneratuta, euskaraz jarri du Lontxo Oihartzabal pedagogoak.

Horrela, bada, hain garrantzitsua den irakaskuntza esan-guratsuaren oinarriak aurkezten dira monografiko honetan.



Euskaraz bai

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta bertan izan dezakeen garapeneren baitan bakarrik ziurta daiteke bere biziraupena. Euskarak etorkizuna behar duelako, iraungo duen hizkuntza izatea nahi dugulako eta euskal herritar guztien hizkuntza izatea nahi dugulako, ezinbestekoa da euskararen garapena ziurtatzea.

Zorionez, nahiz eta euskal jendartearen osoki euskaraz bizitzeko aukerarik ez egon, gaur egun, neurri handi batean euskaraz bizi den jendarte zabala dago. Euskaingintza bilgune da euskaraz bizi den jendarte horrentzat. Hortaz, euskaraz bizitzea da gure aukera. Aukera hori hartu dugunontzat euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako ari gara lanean euskaingintzan. Horregatik ere hizkuntzarentzat esparruak garatu eta zabaldu nahi ditugu; geure bizitza euskaraz normaltasunez egin ahal izateko.

XXI. mendearen hasieran euskarak bizi duen egoeraren aurrean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Batzar Nagusiak oinarrizko irakurketa hau egin du, euskararen egungo egoeraz:

- Egindako lanari esker euskal herritarren euskararen aldeko jarrerak azken hamarkadetan bilakaera baikorra izan duela ukaezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da, euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa. Baina euskararen garapena nahi baino mantsoago ari da gertatzen.
- Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, handitze hori ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa.
- Erabilera ere hazkundera gertatu den arren, egoera normalizatuak izango lukeen erabilera mailaren azpitik gaude oraindik.
- Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.
- Abagune honetan, euskaingintzak elkarlan-jardura aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza oparoa da euskarari emandako bultzada, ehunka gizarte-eragileren ekarpena eta instituzioengan lortutako eragite-lana.

Aurreratutakoa kontuan izan eta normalizaziora iristeko bidea falta dela gogoan hartuta, oinarrizko ildo hauek jarraituko ditugu etorkizunera begira:

1. Euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea ezinbestekoa da. Hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenek ikastea, eta, bere erabilera esparru eta eremu berrietan handitzea, ahalik eta eperik laburrenean. Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu.
2. Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortzea ezinbestekoa da, horrela lor baitaiteke euskararen normalizazioan urrats benetakoak egitea.
3. Euskara lehentasuneko hizkuntza izatea lortu behar dugu, horrela ziurta baitaiteke euskaldunen eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea.
4. Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan soziala bideratu behar dira, biak ere norabide berean. Erakunde instituzionalek, eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek, norbanakoek eta euskaingintzak norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua osatzen dugun eragileok euskararen eremu osoan euskaraz normaltasunez bizitzeko ari gara lanean. Etorkizunerako, euskaingintzan ari garen erakunde eta lagunok lanerako ilusioa eta grina dugula berretsi nahi dugu. Ahalegin horretan batera jarduteko gonbita luzatzen diegu jendarte-eragileei, erakundeek, eta gizarteari oro har.

Amaitzeko, Kontseiluak 10 urte hauetan euskara ikasi, erabili, zabaldu eta horren aldeko hautua egin duten jendarte-eragile guztiei eta pertsona guztiei zorionak eman nahi dizkie.

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN

KONTSEILUA

www.kontseilua.org/euskarazbai